

Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2003ko martxoaren 7a / 621. zenbakia



Aratusteetan,
gaztetxoak
protagonista

ORAIN ETA HEMEN: IRAKEKO GERRAREN AURKA /7 • KIROLA: ESKUBALOIAN, HIL EDO BIZIKO PARTIDUA /11

ARGAZKIA: XABI URZELAI



AMAGARA

Erdiko kalea 54 ARRASATE

40

EGUN GELDITZEN ZAIZKIZU

**GERTA ZAITEZ, ASTE SANTUKO
OPORRAK DATOZ ETA...**

- Azterketa eta tratamendu pertsonalizatuak.
- Eskaintzak

- Gorputz tratamenduak
- Ultrasoniak - Endomasajeak
- Elektroterapia
- Mesoterapia
- Solariuma

**Oraindik garaiz zabilta,
deitu 943 79 09 09 telefonora.**

Egunkaria aurrera!

Orain! Inoiz baino gehiago euskarak behar zaitu.



Elkartasunerako kontu korrontea

k/k 3035.0014.62.0140053171



Kontu hau Topagunea Euskara Elkarten Federazioak ireki du: euskalgintzak jasandako kalteei aurre egiten kolaboratzea eta euskaldunok informatuta izateko dugun eskubidea bermatzen laguntzea du helburutzat diru bilketa honek.

**Egin zaitez
harpidedun**

Dagoeneko
baldin bazara ez bete

Izen abizenak _____

Helbidea _____ P.K. _____

Herria _____

Telefonoa _____


k / k _____

N.A _____

Jaioteguna _____ lanbidea _____

Eman zure herriko batzordeari edo bidali helbide honetara: Martin Ugalde Kultur Parkean, eraikin zuria, 20140 ANDOAIN. Bestela 943 30 35 55 / 943 30 35 54 telefonoetara deitu.


KALEINKESTA/ Zelakue da Mondragueko kultura eskaintza?



DANIEL LÓPEZ
Jubilaue



ANDER KORTABARRIA
Langabie



ARITZ NABARRO
Langillie



PATXI KORTABARRIA
Langillie



PETRA MARI INDA
Etxekoandrie



MARIA DEL CARMEN CONEJO
Etxekoandrie

Gaztiendako nahiko ona dala esango neuke, baiñe nagusixendako gauzak falta die; erromerixak eta holakuek. Oingo jaixek jaixek die, ba! Oingo jaixek ez die lehenguen modukuek.

Nahiko ondo dauela uste dot. Gaztiendako eta umiendako egoten die gauzak. Amaia antzokixen be egitten die gauzak, baiñe antzerki gehixago eta zinie igerten dittut faltan.

Musikari dagokixonez, behintzet, oso ona ez. Taldiek diskuek grabetako arazo haundixagiek dittue. Musikan beherakadie egon dala esango neuke, iguel gaztetxerik ez dauelako.

Helduendako gauza gutxi egoten da. Hamen ezer gutxi dauketzu, hiriburuetara juen biher dozu. Hala be, egixe da Amaia antzokixen geruago eta gauza gehixago antolatzen dittuela.

Egixe esan, gu zinera-eta ez gare jueten, baiñe esango neuke Mondragueko eskaintza kulturala nahiko ona dala. Amaia antzokixe hortxe dau, eta antzerkixek eta holakuek egitten dittue.

Uste dot gauza gehixago egon biherko leukiola. Euskeraz erderaz baiñe gauza gehixago egoten die, eta normala da, baiñe erderaz gauza gutxi egoten die, eta hori igerten dot faltan.

TXALOAKETATXISTUAK



TXALOAK **ESKOLA** **INGURUETAKO** **BIDE-SEINALEAK** Ferixalekuan dauden zebrabideen alboan bide-seinale gehiago jarri dituzte. Ikastola hantxe dago, eta ume eta gazte ugari ibiltzen dira errepide hura gurutzatzen. Horren harira, irakurle batek jakinarazi digu inguruan umeak eta gaztetxoak ibiltzen direla ohartarazten duten bide-seinaleak jarri dituztela, eta hori txalotzeko modukoa dela.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN / 6

Heziketa fisikoa berbagai

Luis Mari Zulakarekin heziketa fisikoa eta eskola kirolaren gainean egin dugu berba.

ORAIN ETA HEMEN / 8

Tabernen beira birziklatzeko

Debagoieneko Mankomunitateak tabernek beira birziklatzeko kanpaina abian jarri gura du.

KULTURA / 15

Hika taldearen 'Ai, ama!'

Domekan, martxoaren 9an, Hika antzerki taldeak *Ai, ama!* lana eskainiko du Amaia antzokian.

ASTEKO DATUA

3

GOLEKO ALDEA BEHARKO DU AGR ARRASATE TALDEAK

Hiru goleko aldearekin irabazi beharko du AGR Arrasate eskubaloitza taldeak igoera faserako sailkatzeko. AGRk domekan jokatuko du, Hegialde Auto taldearen aurka, Iturripen, 11:30ean.

BESTE EKESANA

“Hiru iloba Etxabetar gara Kanpazarko erretegiaren ardura-tzen garenak. Gure nagusie errelebu hartzea erabaki genuen. Bost hilabetez baserria goitik behera berri genuen eta 2002ko abuztuaren berriro zabaldu genuen (...) Jatetxea berriro zabaltzerakoan, parrilla ere eduki gura nuen, eta ni neu egin nintzen horren kargu (...). Oso txikitatik ama eta izeba sukalde lanean ikusi ditut (...). Sagardotegietara joaten ginenean, txuletak guk geuk eramaten genituen, eta ni neu arduratzen nintzen txuletak prestatzeaz, oso gustuko dut-eta (...). Getariako Elkano erretegiaren ere ibili nintzen lanean, eta bisigua egiteko, esate baterako, osagai sekretua daukat, bezeroendako gordetzen dudana”.

AITOR ETXABE
'ZAZPIKA'/03-03-02

HERRITARREN BERBAK/ Iker Ezpeleta



*Betiko en
negozioak
aurrera doaz*

Aste honetan txikizio ugari forma emangodion plan batez idazte-kotan nengoen, Lurraldearen Zatiko Planaz edo gaztelaraz ezagunagoa den P.T.P.az ari naiz. Baina, LZP ahaztu gabe, bizi garen herri honetan maiz gertatzen den moduan, pentsamenduak beste leku batean dauzkat; askok antzemango zenuten bezala, orain dela bi aste atxilotze andanan.

Ez ditut hemen hainbestetan entzun ditugun astakeria horiek ekarri dutena errepikatu, bai ordea askoz gutxiago entzun ditudan gogoeta pare bat: Alde batetik, jende askori entzunda badirudi *Egunkaria*-koak direla atxilotu dituzten bakarrak, torturatu dituzten bakarrak eta azken finean eskubideak urratu zaizkien bakarrak. Non dira autobus xume bat erretzearen akusaziopean bizimodu puskatu dieten bederatzia, eta haien torturak? Edo non dira hurrengo eguneko hamalauak? “Aparato

de captacion”, zer demontre da hori? Eskubide urraketak eguneroko kontu dira herri honetan eta hemen behintzat gehienok dakigu hori.

Bestalde, beste gogoeta bat egoera orokorrari batu beharko zitzaiona. Hau idazten dudana bitartean etxe aurrean *astopistako* lanek aurrera jarraitzen dute, Euskal Herriaren asfaltatze eta txikizioak aurrera doaz (Debagoiena erakusle garbia da), AHTren inguruko politikariatan azkar asko adostuko dira Eusko Jaurlaritzaren eta Madrid...

Behin ta berriz politika globalizatzaile bera daramate, aurrekoan Bilboko superportuan ikusirikoak argi erakusten duen moduan; edo norbait harritu al zen Ibarretxek emandako irudiaz? Gustura asko errege, Rodrigo Rato eta antzeko jendilaje artean.

Beraz, *Egunkaria* aurrera baita Jaurlaritzaren laguntzaz ere, baina Euskal Herriaren porlantzeari stop ere ahaztu barik.

**“Euskaldunon
Egunkaria aurrera,
baina Euskal
Herriaren
porlantzeari stop
ere ahaztu barik”**

Arrasate
PRESS

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantza Lagunilla
Izaskun Bolinaga
Natali Martínez
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Bereizbar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Julen Aranguren

LEGE-GORDAILUA
SS-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 7**
Zabala, Zarugalde 42. 943 77 16 30
- ZAPATUA, 8**
Ruiz, Maala 31 943 79 14 09
- DOMEKA, 9**
Español, Araba etorb. 17 943 79 18 65
- ASTELEHENA, 10**
Azkoaga, Ferrerías 1. 943 79 15 15
- MARTITZENA, 11**
Azkoaga, Iturriotz. 943 79 79 99
- EGUAZTENA, 12**
Corcuera, Maisu Aranbarri 1. 943 79 22 26
- EGUENA, 13**
Irizar, Erguin 11 943 79 12 39

TELEFONOJAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea. 943 03 53 00
Iguualatorioa. 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak. 943 79 39 00
Emakumeak. 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea. 943 79 90 11
- LARRIALDIK**
SOS Deiak. 112
Gurutze Gorria. 943 76 55 76
DYA. 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua. 943 46 11 11
Astelehenetik egubakoitzera. 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan. 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan. egun osoa

- Arrasate**
Astelehenetik egubakoitzera. 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan. 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko: medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
 - Espezialitateak. 943 03 53 11
 - Ikuskatzailea. 943 03 52 52
 - Kanpoko kontsultak. 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak. 943 45 87 44

- ERTZAINZTA**
Arrasate. 943 79 71 99

- SUHILTZAILAK**
Udal taldea. 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua. 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea. 088

- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua). 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero). 943 12 01 62
Gasa. 900 40 05 23
943 79 78 44

- GARRAIOAK**
Taxiak. 943 79 12 22
PESA. 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza. 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza. 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron. 943 77 01 05

MEZAK

- | | |
|---|--|
| San Joan parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (elebiduna) | San Andres eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
10:00 (elebiduna)
11:00 (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz)
13:00 (gaztelaniaz) |
| San Frantzisko eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (euskaraz)
10:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)
19:00 (gaztelaniaz) | Santa Teresa eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
11:00 San Isidron (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz) |
| Uribarri parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
11:30 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz) | Santa Marinako eliza
Jaiegun bezpera eta zapatua
19:00 (gaztelaniaz)
Domeka
12:00 (gaztelaniaz) |

OHARRAK

EGUNKARIA AURRERA
Martitzenean, hilaren 11n, Egunkaria Aurrera herri batzordea eratzeko batzarra egingo dute osoko bilkuren aretoan, 18:30ean.

EGUENETAKO ZINEKLUBA
Eguenean, martxoaren 13an, *Para todos los gustos* filma emango dute Amaia Udal Antzokian, 21:30ean.

HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA
Martitzenean, hilaren 11n, hizkuntzen irakaskuntza-aren gaineko berbaldia egingo dute Monterronen, 18:30ean. Euskaraz izango da. Datorren martitzenean, hilaren 18an, berriz, gaztelaniaz egingo dute.

TXATXILIPURDIEN BATZARRA
Gaur, egubakoitza, Txatxilipurdi elkarteak batzar orokorra egingo du AEDko tabernan, 18:30ean.

LUDOTEKA IBILTARIA
Bihar, zapatua, Ludoteka Ibiltaria egongo da Uribarriko Usaetxe plazan. 3 eta 12 urte arteko umeak jolastu ahal izango dira, 11:00etatik 13:30era bitartean.

BABES OFIZIALEKO ETXEAK
Martitzenean, hilaren 11n, babes ofizialeko etxebizitzaren gaineko berbaldia egingo dute Mondragon hotelean, 19:45ean.

AEDrenAGENDA

AED-REN BATZAR OROKORRA
Martxoaren 13an, AEDko bazkideek batzar orokorra egingo dute, 18:00etan, AEDko egoitzan.

EKIN-EN BATZAR OROKORRA
Martxoaren 20an, Ekin Emakumeak elkarteak bazkideek batzar orokorra egingo dute, 18:30ean, AEDko egoitzan.

URBANOENORDUTEGIA

- Gorostizatik Eroskira**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
- IBILBIDEA:** Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
- IBILBIDEA:** Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.


ORAINDELA 10 URTEARRASATEN

Elurraren eraginez, hainbat arazo Arrasaten

Elurrak Murun egindako kalteen ondorioz, egunetan ezin izan zen telebistatik ikusi. Horrez gainera, hainbat egunean errepide asko itxita egon ziren, eta kooperatibetako 3.000 langilek ezin izan zuten egun baten lanera joan. Futbol partiduak ere ezin izan ziren jokatu.




BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru



"Dindirrixa"

Sudurretako izerdia. *Surretatik dindirrixa, katarrua...*
Surretako dindirrixa, izardixa beti.

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Markel Irizar, berriro bizikleta gainean

Oñatiko txirrindulari gazte horri minbizia antzeman zioten joan den irailean. Azken hilabeteotan gaixotasunari aurre egin behar izan dio: kimioterapia saioak... Baina, zorionez, amesgaiztoa amaitu da: Markel osatu egin da eta irriketan dago berriro ere lasterketetan parte hartzeko. Joan den astelehenean egon ginen Markelekin, eta asteburuko gainbegiratuan berreskuratuko dugu elkarrizketa. Zapatuan eta domekan izango da, 11:00etan hasita.



'Berbeta berua' liburua

Badihardugu Deba ibarreko euskara elkarteak atera berri duen liburuaren izenburua da *Berbeta berua*. Herri hizkerak aztertu eta bultzatzea du helburu elkarteak. 2001ean, *Deba ibarretik euskararen herrira* kaleratu zuen. Oraingoan, ibar osoko argota jaso dute: *estar al loro, tio bueno*, eta halakoak, baina euskaraz eta gure hizkeran. Liburu horretaz jardungo dugu astelehenean Badiharduguko kide Juan Martin Elexpurrekin, 10:30ean.

HAUGIROA!

MINIMOA Egubakoitza, 28	1°C
MAXIMOA Martitzena, 4	23°C
ASTEKO EURIA (l/m²)	35,1 L
	Max. Min. Euria
Eguaztena, 26	15°C 12°C 2,4 l/m²
Eguena, 27	16°C 3°C 0,2 l/m²
Egubakoitza, 28	15°C 1°C 0,3 l/m²
Zapatua, 1	17°C 12°C 22,6 l/m²
Domeka, 2	16°C 7°C 9,6 l/m²
Astelehena, 3	16°C 9°C - l/m²
Martitzena, 4	23°C 9°C - l/m²

Barerako San Juan auzoan jasotako datuak



ASTEKO PROGRAMAZIOA

- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**
09:00 Albistegia
09:30 Igo autobusera
10:00 Euskadi Irratiko albistegia.
10:06 Igo Autobusera.
11:00 Euskadi Irratiko albistegia.
11:20 Arrasate Irratiko albistegia.
11:30 Eguerdiko hamabiak arte: etxerik merideak, zozketak, zorion argurak...
12:00 Euskadi Irratiko albistegia
12:06 Musika berriaren tartea.
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Goizeko saioaren errepikapena.
19:00-21:00-23:00 Albistegi laburra
- ASTELEHENA**
20:00 **MIR:** Gaizka Vitoria eta Iban Idigoras.
- MARTITZENA**
20:00 **Txortxorrien:** Mikel Aranburu eta Jokin Etxebarria.
- EGUBAKOITZA**
19:00 **Planing Prest:** Deiane Arrieta
- ZAPATUA**
11:00 **Asteko elkarrizketak:** Melina López, Hika antzerki taldea, Aspaldiko eskolak...
- DOMEKA**
11:00 **Asteko elkarrizketak**

ASTEABIHITZETAN

Erdialdeko lur azpiko aparkalekua

Erdialdean lur azpiko aparkalekua egiteko ardura zeini eman erabakitzen dabilta. Udalak lehiaketa deitu zuen eta lehiaketara enpresa bakarra aurkeztu da. Adjudikazioa lortuko duen enpresak aparkalekua egin eta horren ondoren ustiari edo zerbitzua eskaini beharko du. Osoko bilkurak izango du azken berba.

Erdialdean egingo duten aparkalekuak Laubide izena izango du eta gaur egun zabalik dagoenak Garibai izena hartuko du. Aparkaleku berria egiteko ardura izango duena, gainera, zaharra ustiatzeaz ere arduratuko da. Aparkaleku berrian 300 autorendako lekua egongo da.

Lapurreta Santa Marinaran

Martitzenean, Udaltzaingoak 25 urteko gazte arrasatear bat atxilotu zuen, Santa Marinarako Amezua farmazian lapurreta egin eta gero. Lapurrak farmaziak gaueko zerbitzuan erabiltzen duen leihatila apurtu zuen eta, barrura sartu barik, handik harrapatu ahal izan zuen dena hartu zuen erakuslehotik. Gehienbat, kosmetikoak eraman zituen. Lapurrak ihes egin zuen, baina udaltzainek Obenerreka kalean atxilotu zuten. Bergarako ertzain etxera eraman zuten, handik epailearen aurrera deklaratzera joateko.

MCCk 2.259 lanpostu sortu zituen iaz

Iaz, 2.259 lanpostu sortu zituen MCCk. Hori horrela, gaur egun, 65.286 langile ditu MCCk, 2001ean baino bost mila gehiago. Dena dela, kontuan izan behar da bost mila langile horietatik 2.800 Ulman, Ecenarron eta Ampon egiten dutela lan. Bestalde, TU Lankide aldizkariak emandako datuen arabera, MCCren salmentak %12,8 igo dira eta 2002an, guztira, 9.146 euro fakturatu zituen Mondragon Korporazio Kooperatibak.



Martxoaren 8ko ekitaldiak, arrakastatsuak

Emakume Sailak eta Emakumeen Kontseiluak Martxoaren 8a dela-eta antolatutako ekitaldiak arrakastatsuak izan dira. Toti Martínez de Lezeak egin zuen berbaldian, esaterako, jende mordoa batu zen Monterrongo aretoan. Asteburuari begira ere hainbat ekitaldi antolatutakoak dituzte.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Gazteen Kontseilua

Arrasaten hainbat saiakera egin dituzte herriko gazteen elkarteak batu eta elkarlanean ekintza bateratuak antolatzeko. Aspaldi Udaleko Drogamenpekotasun arduradunak elkarteak sentsibilizatzeko asmoz, herriko gazte taldeak jardunaldi batzuetan bildu zituen. Handik urte gutxira, 90eko hamarkada hasieran, Aste Santuko

oporraldi batzuetan, AGAKOK, AEDk eta beste gazte talde batzuek elkarrekin egitarau berezia antolatu zuten.

Geroago, Udalak eta hainbat gazte taldek Arrazakeria Astea antolatu zuten. Hamarkada berean, 90ekoan, Hitza eta Ekintza taldeak herriko talde gazte gehienak batu eta Gazte Astea antolatu zuten. Oso arrakastatsua

izan zen.

Aste hura antolatu zenetik, ez dut uste herriko gazte talde gehienak berriro bildu direnik. Eratu berri den Arrasateko Gazte Kontseiluak lortu du, eta badirudi gauza sendoa dela. Helburuetako bat da -beste batzuen artean- laster zabaldu gura duten gaztetxera herriko talde gehiago hurbiltzea. Zorte handia opa diet. Oraina eta etorkizuna gazteen eskuetan dago. Beraz, mugi daitezela!

ASTEKOIRUDIA



XABIER URZELAI

JAIA, MUSIKA ETA KOLOREA ELKARRI LOTUTA DOAZ

Arrasateko herritarrek ez dute Aratusteetan askorik parte hartzen; arrazoi asko daude tartean. Baina geroago eta ume eta gazte gehiago mozorrotzen dira; horregatik, zelanbait jaiak kolore handiagoa hartu du. Badira umeekin batera mozorrotzen diren gurasoak, baita urtero-urtero mozorrotuta kalera

irteten diren koadrila nagusitxoagoak ere. Arratsaldean, umeendako ekitaldiak izan ziren. Eta iluntzean, Arrasate Musikaleko hainbat lagunek osatutako Pancho Villa Bandak, mexikar jantzita, herriko kaleak alaitu zituen. Eskertzekoa da Arrasate Musikaleko partaideek egiten duten lana. /I.B.



Pando
Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre Pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak

Ibilgailuak

Stand-ak

Itsasgarriak

Biniloa

Señalizazioak

Lonak

Erliebendun hizkiak

BITTORI

ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua
Especialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea, 10
Tel.: 943 79 52 50

ELKARRIZKETA

LUIS MARI ZULAIKA/ HEZIKETA FISIKOKO IRAKASLEA ETA 'KIROLA EGITEKO 30 ARRAZOI' LIBURUAREN EGILEA

“Helburua kirolzaletasuna bultzatzea izan behar da, gazteek goza dezatela kirola egiten”

XABIER URZELAI

Arrasate Kirol Proiektuak antolatuta, Luis Mari Zulaikak berbaldia egin zuen joan den egunean Monterronen. *Eskola-Kirola* baliabide hezitzaile gisa gaia landu zuen Luis Mari Zulaikak. Elkarrizketa honetan, baina, *Kirola egiteko 30 arrazoi* liburuaren gainean, eskola-kirolaren gainean, eta gazteen mailetan talde federatuek dituzten arazoaren gainean egin dugu berba Luis Marirekin.

Kirola egiteko 30 arrazoi dituzu zuk. Garrantzitsuenak laburtzerik bai?

Nik uste dut guztiak direla garrantzitsuak, baina arrazoi bakarra aukeratu beharko banu heziketa fisikoak bizi kalitatea hobetzen duela aukeratuko nuke.

Kirola osasuna ei da, baina ondo egiten denean, ala?

Kirol hezitzaileok parte-hartzea bultzatzen ahalegintzen gara. Ikasleak gazte-gaztetatik konturatu daitezela kirola egitea zein garrantzitsua den, eta kirola ez dadila ikuskizuna bakarrik izan. Guk hori bultzatu gura dugu, kirola ez dela telebistan bakarrik azaltzen dena. Egia da kirola osasuntsua izateko ondo egin behar dela, baina lehenengo urratsa jendea kirola egitera animatzea edo motibatzea izan behar da.

Urteek aurrera egin ahala kirolak garrantzi handiagoa hartu du ikastetxeetan. Zer dela eta?

Kirolak berebiziko garrantzia izan beharko luke, eta, ikuspegi zabalago batera joanda, kirolaren gainean baino gehiago, heziketa fisikoaren gainean egiten dut berba. Jakin badakigu heziketa fisikoak zelako onura fisiko, psikiko eta hezitzaileak dituen; bada, hori ondo bideratuz gero, izugarriko baliabide pedagogikoa daukagu. Ikastetxeetan ohartu dira horretaz, baina uste dut oraindik ez zaiola behar adina garrantzirik ematen.

Kirolean dauden balio asko eguneroko bizitzan errepikatu egiten dira: talde-lana, lehiakortasuna, errespetua... Hezi egiten gaitu kirolak?

Inolako zalantza barik. Bizitzarako oso baliagarriak diren balioak heziketa fisikoaren bitartez lan daitezke. Lankidetzaren, arauak errespetatzeak duen garrantziaz jabetzea, helburua lortzen saiatzea... Adibide asko daude, eta denak baliagarriak.

Balioen gainean egin dugu berba; balio positibo eta negatiboak daude: zelan sustatu batzuk eta saihestu besteak?



XABIER URZELAI

“Heziketa fisikoa, ondo bideratuz gero, izugarriko baliabide pedagogikoa da”

Kirola oso kontzeptu zabala da, eta aterki handi horren barruan kontzeptu ezberdinak daude. Goi mailako edo eliteko kirola eta kirol hezitzailea ezin ditugu atal berean sartu, arlo bakoitzak helburu ezberdinak dituelako. Gure gizartean, baina, eta komunikabideen laguntzarekin, arlo bat oso hedatuta dago; eliteko kirola, hain zuzen ere. Eliteko kirolak dituen ezaugarriekin egin izan da lan kirol hezitzailean, eta hori akats handia da. Gazteak eliteko kirolak

“Goi mailako kirolak eta kirol heziketak helburu ezberdinak dituzte, eta ez dira nahastu behar”

dituen ezaugarriekin hazten badiugu, frustrazioak besterik ez dugu lortuko. Eliteko kirolean emaitzek dute garrantzia. Argi geratzen da zein den azkarrena edo zein den onena, eta neska-mutiko asko baztertuta geratzen dira. Lehiakortasun hori ez da hezitzailea, eta heziketa fisikorako gaitasun txikia duten gazteetako izugarri sufritzen dute.

Argi bereiztu behar dira, hortaz, eliteko kirola eta heziketa kirola.

Bai. Orain arte eliteko kirola

“Talde federatuetan gazteak falta dira, baina ez hemen bakarrik, Europa osoan baizik”

leko eredua jarraitu da. Emaitzek zeukaten garrantzia eta goi mailara iristea zen helburua. Baina zenbat neska-mutiko geratu dira bidean? Komunikabideetan arrakasta lortu duten kirolariak azaltzen dira, baina zer gertatzen da beste guztiak? Zenbat gazte dena utzi, kirol barnetegi batera joan eta urte bat edo bi egon eta gero etxera bueltatu behar izan dute? Guk erdiko bidea proposatzen dugu. Gorengo mailara iristeko aukerak dituen kirolariari lagundu egin behar zaio, baina

ezin diogu gizarte osoari eredu hori saldu. Neska-mutiko guztiak ezin diegu esan: helburua hau da, eta ea nor iristen den! Hori astakeria izugarria da. Gure helburua kirolzaletasuna bultzatzea izan behar da, gazteek goza dezatela kirola egiten.

Horregatik praktikatzen dituzue eskola kirolean horrenbeste kirol.

Hor lehia bat daukagu. Goi mailako futbol taldeak ez datoz gure ereduarekin bat. Euren esanetan, hainbat kirol egitea ez da onena. Goi mailara iristeko, gazteek txiki-txikitatik kirol bakarriari eutsi behar diote, eta gu ez gatoz horrekin bat. Gaztetan neska-mutikoek kirol bat baino gehiago praktika dezatela, euren gaitasunak berdin-berdin landuko dituzte-eta. Gaitasuna duena berdin-berdin iritsiko da elite mailara.

Gurasoek zein paper bete behar dute?

Umeengan hainbat pertsonak eragin handia dute, eta hierarkikoki gurasoek dute eragin handien. Umetan, Indurain edo Michael Jordan izan gura dugu, eta hori normala da, baina iristen da momentu bat non konturatu garen ez garela ez Indurain ez Michael Jordan ere izango. Prozesu horretan gurasoek zein jarrera izan duten oso garrantzitsua da. Zenbait kasutan gurasoek presio handiegia egiten dute neska-mutikoek helburuak bete ditzaten. Eta helburuak betetzen ez direnean, umea behera etortzen da, bere buruari kale egin diolako eta, are garrantzitsuagoa, gurasoek kale egin dielako.

Gauza bakoitzari dagokion garrantzia eman behar zaio. Hori bai, guraso askok berehala topatzen dute aitzakiaren bat seme-alabek heziketa fisikorik egin ez dezaten, eta seme-alabei mesede egiten ari direla usteko dute.

Eskola kirola bide zuzenetik badoa, kirol federatuak zergatik daude kirolari faltan?

Hor faktore asko daude, baina arazo hori ez dago Arrasaten edo Gipuzkoan bakarrik, Europa osoan dagoen arazoa da. Futbola da arazo horren gainean gehien kezkatzen den kirola, eta, era berean, neska-mutiko gehien dituen kirola da. Baina egia da kirol federatuetako maila gazteetan erretortzea falta dela. Esan bezala, faktore asko daude: jaiotze tasa baxua, ohitura aldaketak... Alde horretatik, oso argi daukat heziketa kirolarekin bide zuzenetik goazela, eta zorionak eman nahi dizkiet Arrasate Kirol Proiektuan lanean dabiltzanei, lan txukuna egiten dutelako.

GIZARTEA/ Irakeko gerra

Gerraren kontrako plataforma eta ekimenak

UBANE MADERA

Irakeko gerraren kontrako plataforma sortu da Arrasaten. LAB, ELA, ESK eta CCOO sindikatuetakako ordezkariak osatutako plataforma da, baina parte hartu gura duen edozeinendako zabalik utzi dute atea.

Gerraren Aurkako Gipuzkoako Plataformarekin bat egin, eta Arrasateko Gerraren Aurkako Plataforma sortu da herrian. CCOO, LAB, ELA eta ESK sindikatuek abiarazi dute talde berria, baina, aurrera begira, alderdi, erakunde eta edozein herritarrek ere parte hartzea da helburua, besteak beste, gerrari kontra egiteko ideia berriak emateko. Hala adierazi zuten martitzenean emandako prentsaurrekoan.

MOBILIZAZIOAK

Horrez gain, herritarrek mugiaraztea eta pentsatzen dutena kalean esanaraztea lortu gura dute sindikatuek. Horren harira, kontzentrazioa deitu dute datorren martitzenerako, hilak 11. Seber Altuben izango da, 18:30ean. Helburua da argi eta garbi adieraztea "gubernuak Irak bonbardatzen badu ez dela izango geure ize-nean".

Edozelan ere, hitzordu hori

POLITIKA/ Osoko bilkura

'Egunkaria'-ren aldeko mozioa, osoko bilkuran

Osoko bilkura berezia egin zuen atzo udalbatzarrak. Zinegotziek hamalau gai zituzten aztertzeko, tartean, Arrasateko euskalgintzak *Egunkaria*-ren itxiera dela eta aurkeztutako mozioa.

Mozio hori gainerako udale-



UBANE MADERA

Arrasateko euskalgintzaren izenean aurkeztu dute *Egunkaria*-ren aldeko mozioa.



UBANE MADERA

LABeko, ELAko, ESK-ko eta CCOOko ordezkariak, prentsaurrekoan.

baino lehen gerra hasten bada, orduan ere protesta egiteko kale agerraldia deitu dute, 18:30ean, herriko plazan.

GERRA EKONOMIKOA

Sindikatu horietako ordezkariak esan zuten, Iraken kontra egin gura den eraso gerra ekonomikoa da. "Ez da inporta Saddam Husseinek zein erregimen duen, ezta gerrarengatik zenbat jende hiltzen den ere". Euren esanetan, "petrolio kontrolatu ahal izateko gerra da".

MUNDU OSOA BATERA

Bestalde, eta Florentziako Foro Sozialean planteatutako helburrekin bat eginez, gerraren aurkako mobilizazio globala lortzea oso garrantzitsua dela adierazi zuten sindikatuetakako ordezkariak. Eta, dagoeneko mugimendu global hori sortzen dabilela esan zuten. Horren adibide, otsailaren 15en Donostian egin zuten manifestazioa. Hain zuzen ere, mundu mailako mugimendu horrekin bat egin gura dute, baita Arrasaten ere.

BESTELAKOAK

Mozio horrez gainera, bestelako gai batzuk ere landu zituzten zinegotziek. Besteak beste, auto-taxi zerbitzuaren tarifak aztertu zituzten; Egitamu Orokorrekin lotutako zenbait gai landu zituzten; aurtengo aurrekontutik kredituak aldatzeko espedientea ere aztergai izan zuten eta, Debagoieneko Industrialdearekin lotutako akzioak harpidetzeko proposamenaren gainean ere erabaki zuten.

Edozelan ere, albiste hau idaztean, bilera egin barik zegoen; hortaz, ez dugu jakiterik zeintzuk diren zinegotziek hartutako erabakiak.

LABUR

Sonografoak ipiniko dituzte Arrasateko beste bi tabernatan


Larregiko zarata sortzen dutela-eta, Arrasateko Etxoste eta Linde tabernen kontrako salaketak ipini dituzte Udalean. Etxoste tabernari dagokionez, berandu ixteagatik ere izan du salaketarik. Horren harira, eta azkenaldian egin ohi dutenarekin segituz, bi taberna horietan sonografoak ipiniko dituela erabaki du oraingo asteko Gobernu batzordeak. Tabernetan dagoen zarata maila eta, horren ondorioz, taberna noiz ixten duten ere jakin ahal izango dute sonografoei esker. Horrela, bi taberna horiek legea betetzen duten edo ez ikusiko dute. Legea bete ezean, dagokion zigor-espedientea irekiko diote tabernari eta akaso isunen bat edo beste ordaindu beharko du.

Euskal kultura, hizkuntza, hizkuntzen egoera eta antzerako gaiak lantzeko hitzaldia

Arrasate Herri Eskolako Ikasleen Guraso Elkarteak eta Arrasate Herri Eskolak lankidetzan hitzaldia antolatu dute datorren martxoaren 11rako eta 18rako. *Hizkuntzen Irakaskuntza* da hitzaldi horren izenburua eta Eibarko Berritzeguneko Euskararen Normalizazio teknikari Josune Alberdik egingo du. Besteak beste, euskal kultura, hizkuntzen egoera eta hizkuntzen ikasketa prozesua landuko dute. Esan bezala, hitzaldia bi egunetan izango da: martxoaren 11n euskaraz eta martxoaren 18an espainolez.

Babes ofizialeko etxebizitzaren gaineko hitzaldia izango da datorren martitzenean

Etxebizitzekin lotutako berbaldia egingo dute datorren martitzenean Mondragon Hotelean, 19:45ean. Deba Garaia etxe-agentziak antolatu du hitzaldia, eta Jesus Markaide ekonomilaria izango da hizlaria. Besteak beste, babes ofizialeko etxebizitzaren gaineko informazioa emango du: etxebizitzak lortzeko laguntzen berri, etxebizitzak berritzeko laguntzen berri, 2003ko PFEZren (IRPF) berritasun fiskalen berri... Interesa duen edozein joan daiteke hitzaldira.



Laster zabalduko dute Gernika zumardia

Laster estreinatu ahal izango dugu Gernika Oinezkoen Zumardia oso-osorik. Izan ere, dagoeneko ipini dute Zarugalde eta Erguin auzoak lotuko dituen oinezkoendako zubia. Hain zuzen, oinezkoen pasealekua bukatzeko falta zen zatia da horixe. Edozelan ere, oraindik zubi hori zolatzea falta da; zoladura gorria botako dute. Era berean, zubiaren argiteria eta baranda ipintzea ere falta da, baita bestelako lan txikitxo batzuk ere. Kontuak kontu, Arrasateko Udaletik jakinarazi digutenez, martxoaren amaierarako guztia bukatuta egon behar du.



Aparkaleku publikoa eraikitzen ari dira Santa Marinan, bolalekua zegoen tokian.

UBANE MADERA

HIRIGINTZA/ Santa Marinarekin eta Makatzenarekin lotutako zenbait berri

Santa Marina eta Makatzena, berbagai

UBANE MADERA

Bolaleku berria egingo dute Santa Marina auzoan. Hala onartu du oraingo astean Gobernu batzordeak. Hain justu ere, lehengo bolalekua bota egin zuten aparkalekuak egiteko, eta horregatik eraikiko dute orain berria. Ia 25.000 euro inbertituko dute.

Santa Marina auzoan aparkaleku falta izugarria zegoela-eta, aparkalekuak egiteko auzoko bolalekua kentzea erabaki zuen Udalak. Orain, haren ordezkia eraikitzea erabaki dute. Hain justu ere, lehengo bolalekutik oso gertu eraikiko dute berria.

Bolalekuaren proiektua udallexean dago, gura duenak ikusteko eta interesik badu alegazioak aurkezteko.

APARKALEKUAK

Aparkalekuak aipatu ditugunez, berriz, esan beharra dago dagoeneko hasita daudela aparkalekuak egiteko lanak. Orain arte, lurra leuntzen ibili dira, gero zolatu egingo dute eta argiteria ipiniko dute. Aurreikusitakoaren arabera, 15 egun barru edo lehenago bukatuta izango dira lanak, beti ere, eguraldiaren arabera.

Santa Marinako Galiza kalean egongo da aparkalekuak, publi-

ko izango da eta 80 bat ibilgailurendako lekua egingo dute.

MAKATZENA

Bestalde, Santa Marinatik apur bat gorantz egin, eta Makatzena joko dugu orain, izan ere, berriro ere hasi dira hango garaieak eraikitze lanak egiten. Hiru hilabetez egon dira lanak geldituta; abenduan egindako euriaren ondorioz, luiziak izan ziren eta lanak geldiarazi egin behar izan zituzten. Horrek, besteak beste, eragozpen dezente sortu die auzokideei, urrutia samar ibi-

li behar izan dira-eta euren ibilgailuak aparkatzen.

Kontuak kontu, berriro ere abian dira lanak, eta aurreikusitakoaren arabera, hiru hilabete barru amaituta egon behar dira.

Guztira, 60 garaie egingo dituzte Makatzena inguruan.


AUZOTARRAK KEZKATUTA

Bestalde, Makatzena berriro urbanizatzeko proiektua dela-eta, oso kezkatuta daude auzotarrak. Jabi Linazasoro auzo-alkateak Arrasate Irratiari azaldu-takoaren arabera, Makatzenaren egoera ez da batere ona, eta lehenbailehen zerbait egitea komeni da. Auzo alkateak jakin badaki aurtengo udal aurrekontuan kontante lanak egiteko diru partida bat onartu duela Udalak, baina, Linazasorok dio 2001. urteko aurrekontuan ere onartu zutela antzekorik eta, 2000. urtean lanak egiteko auzoaren egoeraren gaineko azterketa ere egin zutela. Baina, oraindik ez dutela ezer egin. Eta kezkatuta daude orain ere egingo duten edo ez.

Horren berri jakiteko Udaleko Hirigintza sailera jo dugu eta han azaldu digutenez, kontua da lanon proiektua egin behar zuen enpresa atzeratu egin dela. Urtrilerako proiektua eginda izan behar zuten, baina Arrasateko Udalean oraindik zain daude.

Lehengo bolalekutik oso gertu eraikiko dute Santa Marina auzoko bolaleku berria

Udalan zain daude, Makatzena urbanizatzeko proiektua noiz aurkeztuko



Tabernetan botila asko erabiltzen dela-eta abiarazi dute kanpaina.

Tabernetan eta jatetxeetan beira birziklatzeko kanpaina

ARRASATE IRRATIA

Debagoieneko Mankomunitateak edukiontzi bereziak ipini gura ditu tabernetan eta jatetxeetan, erabiltzen duten beira birziklatzen laguntzeko. Edozelan ere, lehenago inkesta bat egin behar dute.

Mankomunitatearen helburua da ostalaritzako langileei lana erraztu eta beira birziklatzen laguntzea. Izan ere, horrelako lekuetan botila asko erabiltzen dituzte. Horrela, egin gura dutena da tabernariei gurpildun ontziak eman, ontziak zabaltzeko giltza eta guzti; horrela, tabernariak ontzi horietan sartuko dute beira eta gero, beste edu-

kiontzi handiago batera eramango dute, horiek ere berriak. Edukiontziak handi horiek bereziak izango dira, betiko edukiontziak baino *ahoz* handiagoa izango dute; horrela, tabernariak ez dira zertan botila bakoitza banaban botatzen ibili behar.

INKESTA EGIN BEHAR

Edozelan ere, kanpaina abian jarri aurretik, ostalaritzako langileek iritzia jakin behar du Mankomunitateak, eta horretarako, inkesta egitea erabaki du. Inkestaren emaitzaren arabera erabakiko dute zelan abiarazi zerbitzu berria. Besteak beste, beira batzeko egunak, edukiontziak ipintzeko lekuak... zehaztu behar dute inkestaren bitartez.

LABUR

Automozioiko mekanikaren gaineko ikastaro okupazionala

Automozioiko mekanika ikasteko ikastaroa antolatu du Udalak. Berezi, langabezia dauden emakumeei zuzendutako ikastaroa da, baina bestelako langabeek ere badute parte hartzeko aukera. Kontzesionario edo lantegietan mekanikari laguntzaile lan egiten ikasteko eskolak emango dituzte; guztira, 234 ordu. Askok jota 12-15 lagunek hartu ahal izango dute parte.

Hirigintza eta hiria aztertzeke bi ikastaro izango dira

Martxoaren 25ean, "Hiri eta hiriaren planifikazioa genero ikuspuntutik aztertzeke" ikastaroa izango da Arrasaten, 17:00etatik 20:00etara. Udaleko Emakume Sailak antolatu du ikastaroa; hain justu ere, hirigintza egiteko orduan emakumeen ikuspuntua kontuan har dezaten lortzea da helburua.



GIRO POLITA EGON ZEN MARTITZEN ARRATSALDEAN

Martitzen arratsaldean giro polita egon zen Arrasateko erdialdean. Eguraldia lagun, jende asko ibili zen kalean gora eta behera eta asko zeuden, gainera, mozorrotuta. Arratsaldean gaztetxoak izan ziren protagonista, eta Herriko Plazan elkartu ziren guztiak. Kolore biziko jantziak, aurpegiak margotuta, musika, dantza... Aratusteak, azken baten. Gaztetxo guztiak mozorrotuta egoteaz gain, nagusi askok ere ez zuten kalerik egin, eta argi geratu zen Aratusteak ez direla gaztetxoek kontua bakarrik. Arratsaldeko bostetan kale animazioa egon zen Detraka taldearen eskutik. Segidan, Samasiku txarangak dantzan jarri zituen guztiak, eta zazpitan, Arrasate Musikaleko bandaren eskutik Mexikoko giroa gertu-gertutik bizi izan genuen. Horrez gainera, Luhartz taldearen musika eta sardina-ehorzketak ere izan ziren.

Arratsalde partean Samasiku txarangak giro polita jarri zuen Herriko Plazan.

XABIER URZELAI



IKER BARANDIARAN

Pailazoa ez zegoen argazkiarekin oso konforme. Txirikordaduna bai, ordea.



IKER BARANDIARAN

Mozorroa erabakitzerako orduan ados jarri ez ziren arren, argazkirako guztiak eman zuten baiezkoa.



XABIER URZELAI

Gaztetxoek beldur apur bat ere pasatu zuten.



XABIER URZELAI

Non geratu da John Wayne?



XABIER URZELAI

Jantzi barik ere, sorgin itxura galanta zuen koadrila horrek.



IKER BARANDIARAN

Peter Pan-en familia osoa jaitsi zen Udalatik, eta bidean Hook piratarekin egin zuten topo.



XABIER URZELAI

Pot-pourri ederrak ikusi genituen kalean, batez ere, dantzarien artean.



XABIER URZELAI

Argazkia e-postaz bidaltzeko baldintzarekin atera genion bikote horri argazkia.



XABIER URZELAI

Argi dago mexikar janzteak beti izan duela dezenteko arrakasta.



XABIER URZELAI

Errege izan guraz gero, Aratusteak aprobeztatu behar!



IKER BARANDIARAN

Ama dezente mozorrotu ziren jaietan; aitak ez ziren horrenbeste izan.



IKER BARANDIARAN

Batez ere, umeena da Aratuste jaija, umearen begitxoek dioten moduan.



ARRASATE PRESS

Senior mailako bigarren taldeak 27-20 irabazi zion Donibane bigarren taldeari, Donibane Cottal taldeari.

ESKUBALOA

AGR Arrasatek hil edo biziko partidua jokatu du Hegialde Autoren kontra

Igoera faserako sailkatzeko, arrasatearrek hiru goleko aldearekin irabazi behar dute

XABIER URZELAI

Joan den astean, AGR Arrasatek puntu baliotsua ekarri zuen liderraren, Donibane Majestic taldearen, kantxatik. Arrasatearrek puntu beharrean zeuden, eta irabazteko aukerak izan zituzten arren, 21-21 berdindu zuten. Emaiza ona da, AGRk oraindik ere igoera faserako sailkatzeko aukerak ditu-eta.

Puntu baliotsua ekarri zuen AGR Arrasatek Donibanetik. Norgehiagoka gaitza zen, liderraren kantxan jokatzeko zutelako, baina mondragoetarrek argi zeukaten Donibanetik esku-hutsik bueltatu gero igoera faserako sailkatzeko aukerak galduko zituztela. Partiduak aurrera egin ahala,

liderrari irabaztea posible zela ikusi zuten arrasatearrek. Bi taldeetako inork ez zuen behar baino gehiago arriskatu, eta, Arrasatekoek irabazteko aukerak izan zituzten arren, 21-21 egin zuten. Emaiza ona da, mondragoetarrek oraindik igoera fasearekin amets dezaketelako.

PARTIDU ERABAKIGARRIA

Oraingo asteburuan, denboraldiko partidu garrantzitsua jokatu dute Bernardo Balerdiren mutilek. Partidu garrantzitsua izateaz gain, ligako azken partidu ere izango da. Domekan, sailkapeneko bigarren postuan dagoen Hegialde Auto talde legazpiarra izango da Iturripen. Joan den astean, legazpiarrek justu-justu irabazi zuten, eta

haiek ere igoera faserako sailkatzeko txartela dute jokoan. Tentsio handiko partidua izango da. Mondragoetarrek ondo jokatu beharko dute, bai erasoan baita defentsan ere, eta argi izan beharko dute partiduan ezin dutela kontzentrazioa galdu, ezin dutela behera egin, norgehiagoka irabazteaz gain, igoera faserako sailkatzeko hiru goleko aldearekin irabazi behar dute-eta.

Domeka goizean, AGR Arrasatek aurrera egin dezan publikoaren berotasuna ezinbestekoa izango da. Esan barik doa taldea harmailetatik animatzeak eta epailea presionatzeak sekulako eragina izaten dutela; hortaz, domekan, goizeko hamaika eta erdietan, hitzordu garrantzitsua izango da Iturripen.

Kenci Arrasatek aukera polita galdu zuen Paulesen kontra (87-77)


Arrasateko saskibaloitza taldeak sailkapenean gora egiteko aukera ezin hobea galdu zuen domekan. Kenci Arrasate eta Ursulinas taldea jo eta ke dabiltza igoera faserako sailkatzeko. Seigarren postua eskuratzea da talde bi horien helburua, eta, oraingoz, Ursulinas taldeak partidu biko alde du. Joan den astean, Ursulinas taldeak galdu egin zuen, baina Kenci Arrasatek ere

ez zuen irabazi, eta gauzak zudenetan geratu ziren. Kenci Arrasatek aukera bikaina galdu zuen, hortaz, Paules taldearen kantxan. Barakaldon jokatu zen partiduan bikain hasi ziren mondragoetarrek; 0-8 aurre hartu zuten markagailuan, baina lehenengo laurdena amaituta Paules aurretik zen markagailuan.

Bigarren laurdenean mondragoetarrek ez ziren fin ibili, eta

bizkaitarrek sei puntuko alde eskuratu zuten (41-35). Arrasatearrek zeukaten indar guztia hirugarren laurdenean erakutsi zuten, eta norgehiagoka berdindu zuten (71-71). Laugarren laurdenean talde bietako edozeinek egin zezakeen aurrera, baina hirugarren laurdenean egindako esfortzua larrutik ordaindu zuten mondragoetarrek, eta Paules Carrefour 87-77 nagusitu zen.

FOTOKIROLA



Jonathan Pérez, bederatzigarrena Valentzian

Joan den astean, Jonathan Pérezek Valentzian jokatu behar zen Espainiako Txapelketarako txartelik lortu ez zuela jarri genuen, baina azken unean, gutxieneko marka atleta gutxi gaitzen zuten, Valentzian egoteko deitu zuten. Mondragoetarrek hirugarren aldiz 4,90 metroko jauzia egin zuen eta bederatzigarren geratu zen. Hala, pista estaliko denboraldia amaitu da, eta apirilean aire zabaleko probak hasiko dira. Jonathaneke orain arteko helburu bera izango du: 5 metroko jauzia egitea.

PILOTA

Arrasateko senior mailako pilotariak Añorgan hasiko dute bigarren fasea

Oraingo asteburuan hasiko da Udaberri Txapelketako bigarren fasea, eta mondragoetarrek lehenengo partidua Añorgan jokatu dute, zapatu arratsaldean. Arrasateko pilotarien esanetan, hurrengo faserako sailkatzea ez da batere erraza izango, multzo gaitza tokatu zaie-eta. Arrasatearrek Añorgaren, Azkoitiaren eta Intxaurren kontra jokatu beharko dute. Aurkari gogorak izateaz gain, Arrasateko pilotariak lehenengo bi partiduak kanpoan jokatu dituzte eta azkena, Intxaurren kontrako, Uarkapen jokatu dute.

ERRUGBIA

Arrasateko Errugbi Taldeak 20-27 irabazi zion Gasteizko Gaztedi taldeari

Arrasateko Errugbi Taldeak garaipen garrantzitsua eskuratu zuen joan den astean Gasteizen. Norgehiagoka gogorra izan zen, jokaldi batzuetan gogorregia, eta talde bietako jokalariek leher eginda amaitu zuten partiduak. Arrasatearrek hartu zuten aurre markagailuan, eta atsedenean aurretik zeuden (3-19).

Bigarren zatian, baina, arrasatearrek lokartu egin ziren, eta Gaztedik markagailuko alde txikitu egin zuen. Hala ere, arabarren erreakzioa ez zen partiduari buelta emateko modukoa izan.

BESAIDE MENDI ELKARTEA

Datorren eguaztenean, hilak 12, diapositiba emanaldia egingo du Aritza Monasteriok

Besaide Mendi Elkarteak antolatuta, Aritza Monasterio -2002ko Urrezko Pioleta- Arrasaten izango da datorren eguaztenean. Aritza Monasterio Perun bizi da, Andeetan, eta Huaraz mendietako gidari da. Arrasaten egingo duen diapositiba emanaldian, Huayhuash-eko mendilerroaren gainean egingo du berba.

Diapositiba emanaldia arratsaldeko zazpitan izango da, Monterron jauregian, eta guztiok zaudete gonbidatuta.

Dorletako Ama Txirrindulari Eskolak aurtengo taldeak aurkeztu zituen

XABIER URZELAI

Joan den zapatuan, Dorletako Ama Txirrindulari Eskolak aurtengo infantil, kadete eta gazte mailetakoko taldeak aurkeztu zituen. Aurkezpen ofiziala egin baino lehen, baina, ziklistak Dorletako santutegira joan ziren Amabirjinari lore eskaintza egitera.

Urteroko ohiturari eutsiz, txirrindulari gazteek euren bizikletak bedeinkatu zituzten, denboraldian barrena Dorletako Amaren babesa izateko. Infantil, kadete eta gazte mailetakoko taldeen aurkezpena Apotzagako auzo etxean egin zuten. Aurten hemezortzi talde izango dira Dorletako Ama Txirrindulari Eskolan. Hamalau txirrindulari izango dira infantil mailan, hiru kadete mailan eta ziklista bakarra izango da gazte mailan.

Gazte mailako taldearen arduraduna Asier Bengoa da, eta Asierrek gazteek duten ilusioa azpimarratu gura izan zuen. Kadete mailako ziklistekin Jose Frutos ibiliko da lanean, eta infantilez Jose Javier Sedano arduratuko da. Txirrindulari gazteek esan zigutenez, negu partean ez dira askorik entrenatu, baina azke-



JON BEREZIBAR

Dorletako Ama taldeko txirrindulariak, denboraldiari aurre egiteko gertu.

naldian jo eta ke dabilta. Aurtengo denboraldia aurrera ateratzeko, beste behin, Dorletako Ama Txirrindulari Eskolak JMA eta Fagor enpresen babesa izango du, eta babes hori eskertzeko enpresen ordezkariari opari bana eman zieten.

GEROAGO ETA GAZTE GUTXIAGO

Baina zapatuan guztia ez zen positiboa izan. Txirrindulari eskolako arduradunek bizikleta har-

tzera geroago eta gazte gutxiago animatzen dela salatu zuten. Dorletako Ama taldeko kide Manolo Zubillagak aurtengo taldearekin pozik dagoela adierazi zuen, baina pena txiki bat ere badauka: "Urtero izaten naiz Dorletako Ama Txirrindulari Eskolaren aurkezpenean, eta urtero-urtero gazte gutxiago daudela konturatzen naiz. Hala ere, txirrindu taldeak lanean jarraituko du, eta etorriko dira garai hobek".

Kirola Euskaraz beken irabazleetako bat, arrasatearra

X.U.

Dagoeneko eman dituzte aditzera Kirola Euskaraz beken irabazleak, eta horien artean arrasatear bat dago: Zigor Gartzia. Zigorrek Oier Zulaika taldekidearekin batera kirol alternatiboen gaineko fitxa didaktikoak egingo ditu.

Aurtengoa Kirola Euskaraz programaren XIII. aldia izan da, eta irabazleak Roman Agirre oñatiarra eta Zigor Gartzia eta Oier Zulaika bikotea izan dira. Roman Agirrek yoga sailean irabazi du, eta aurkeztu diren lau proiektuetatik Romanena izan da onena. Kirol alternatiboen sailean, berriz, Arrasateko Zigor Gartzia eta Legutianoko Oier Zulaikak

osatzen duten taldeak eskuratu du beka. Beken irabazleek 3.000 euro izango dituzte fitxa didaktikoak euskara hutsean egiteko. Fitxa didaktiko horiek aurtengo izango dira salgai. Lanok ibarrekiko kiroldegi, kirol etxe eta ikastetxeetan banatuko dituzte guztion eskura egon daitezten.

HAMAR URTE LANEAN

Beka horiek egiteko ideia orain dela hamar urtekoa da. Ibarrekoko heziketa fisikoko irakasle eta monitoreek euskaraz lan egiteko materiala igartzen zuten faltan, baita kirol jardueretan ibiltzen direnek ere.

Hala, arazo horri irtenbidea emateko asmoz, hainbat kiroltako fitxa didaktikoak egin dituzte azken hamar urteotan.

ATLETISMOA

Oraingo asteburuan, atleta beteranoen pista estaliko Europako Txapelketa jokatu da

Arrasateko atleta beteranoek ez dute atsedetik izango oraingo asteburuan, beteranoen mailako pista estaliko Europako Txapelketa izango da-eta jokoan. Anoetan jokatu den txapelketan Maria Jose Gil, Cesar Díez eta Javier Mentxaka mondragoetarrek hartuko dute parte. Arrasateko atleta beteranoek 3.000 eta 5.000 metroko lasterketetan hartuko dute parte.

2003ko martxoaren 8ko egitaraua

Gure eskubidea delako

EGUNA	ORDUA	ZER	NON
Martxoaren 8an Zapatua	10:00	Emakumeen Azoka Bertsolariak Manifestazioa Luncha	Seber Altuben
	13:00		Seber Altuben
	19:00		Osoko bilkuren aretoan
	20:00		
Martxoaren 9an Domeka	19:30	Antzerkia "Ai ama"	Amaia antzokian
Martxoaren 13an Eguena	21:30	Zinekluba "Para todos los gustos"	Amaia antzokian
Martxoaren 20an Eguena	19:00	Zinekluba "La pizarra"	Amaia antzokian eguena
Martxoaren 25ean Martitzena	17:00etatik 20:00etara	Ikastaroa "Mujer y ciudad"	Osoko bilkuren aretoan



UDABERRIA - UDA
2003

ERDIKO KALEA 14 ARRASATE 943 79 46 94

Mondra hiru puntuak eskuratzeko asmoz joango da Ilintxaren zelaira

XABIER URZELAI

Joan den astean atsedena izan eta gero, Mondra lanera bueltatuko da asteburuan. Eta gogotik ekin beharko dio lanari, dagoeneko hirugarrena da eta sailkapenean. Urolak irabazi egin zuen atzeratuta zeukan partidua, eta Arrasateko taldeak baino puntu bat gehiago dauka. Ilintxaren zelaietan badago zer egin.

Eta egin beharrekoa ez da erraza izango, Ilintxa etxean jokatzen duenean kontuan hartzeko kontrarioa izaten da eta. Arrasateko taldearendako azken emaitzak ez dira gura bezain onak izan, baina hori alde batera utzi, eta Mondrak aurrera begira jarraitu behar du. Arrasatearrek goiko postuengatik lehian jarraitu gura badute, ezin dute puntu bakar bat ere opari egin, eta hori ez da erraza. Oraindik partidua asko geratzen dira jokatzeko, bederatzi, hain zuzen ere, eta partidua horietan guztietan gauza asko daude erabakitzeke.

Zumaiakok eta Urolak talde sendoak direla erakutsi dute, baina talde bi horietako bakarrena ere ez da Mondra baino hobea. Etxeko taldeak, baina, gauzak oso



ARRASATE PRESS

Ilintxaren zelaietan mondragoetarak ezin dute kalerik egin.

ondo egitetik ez hain ondo egitera berehala egiten du salto, eta horixe hobetu beharko dute Josu Zubiriaren mutilek. Geratzen diren partiduetan erregularrena denak eskuratu dituzte puntu gehienak; hortxe egongo da txapelketaren gakoa.

GOL KOPURUAK BEHERA EGINDU

Aurtengo denboraldian Mondrak gol zaparrada galantak egin ditu, baina azken hilabeteotan gol

kopuruak behera egin du. Urtarrilean, Idiazabalen bisita izan genuenean, Mondrak 7-1 irabazi zuen. Orduz geroztik, eta Zumaiakoren partidua kontuan hartu barik, Mondrak partiduko gol bakarra egin du. Hori bai, gol horiek sekulako errentagarritasuna eman diote etxeko taldeari. Arrasatearrek goiko aldean egon behar dute, eta Zumaiakoren eta Urolaren hutsegiteak aprobetxatu. Hori da bidea.

ZALDIBARARETOFUTBOLA

EMAITZAK

A MULTZOA

Saukelu Scream - Fuxxion	5-1
You Know! - Etxinai!	3-3
Betrayer - Bikain Akademia	7-6
Lasagabaster - Dribling.es.vg	6-6

B MULTZOA

AC Surcos - Goma-2	12-1
Aurrera Bolie - Makanaki	2-1
Koka Juniors - Etxerat	4-10
AT Celaya - Iriztu	3-3

PARTIDUAK

MARTXOAK 8, ZAPATUA. EPAILEAK

10:50: Goma-2 - Etxerat.	Dribling
12:00: You Know! - Dribling.es.vg.	Goma-2
13:00: Fuxxion - Bikain Akad.	You Know!
15:50: AC Surcos - Makanaki.	Saukelu Scr
17:00: Saukelu Scream - Etxinai!	Makanaki
18:00: Aurrera Bolie - Iriztu Tab.	Etxinai!

MARTXOAK 9, DOMEKA

11:50: Betrayer - Lasagabaster.	AT Celaya
13:00: Koka Juniors - AT Celaya.	Betrayer

SAILKAPENA

A MULTZOA

1. Betrayer	2	1
2. Saukelu Scream	2	1
3. Dribling.es.vg	1	1
4. Lasagabaster	1	1
5. You Know!	1	1
6. Etxinai!	1	1
7. Bikain Akademia	0	1
8. Fuxxion	0	1

B MULTZOA

1. AC Surcos	2	1
2. Etxerat	2	1
3. Aurrera Bolie	2	1
4. Iriztu Taberna	1	1
5. AT Celaya	1	1
6. Koka Juniors	0	1
7. Makanaki	0	1
8. Goma-2	0	1

FOTOKIROLA



Arrasateko Debagoiena Zikloturista Taldeak denboraldia hasi du

Joan den asteburuan hasi zuen Arrasateko zikloturista taldeak aurtengo denboraldia. Ohiturari jarraituz, Dorletako Amari lore eskaintza egin eta bizikleta gainean 48 kilometro inguruko osteratxo egin zuten. Denboraldi hasiera denez, ez da gogorregi hastea komeni. Oraingo domekan ere, Arrasateko Debagoiena Zikloturista Taldea errepidean izango da. Ez daude batere pozik inguruko errepideekin; euren esanetan, errepidean zuloak baino ez daude, eta auto-gidariak ere behar baino errespetu txikiagoa dute. Hala ere, bizikletan ibiltzeko zaletasuna ez dute alde batera utziko, eta urrirra arte domekero errepidean ibiliko dira. Hori bai, abuztua deskantsatzeko aprobetxatuko dute.

BIGARREN FASEAN, JARDUNALDI LASAIA

ASPALDIKO PARTEZ EZ DA ISTILURIK IZAN

Badirudi txapelketako fase berria hasteaz bat taldeak lasaitu egin direla. Jakin badakite norgehiagoketan egiten diren lelokeriak garesti ordaintzen direla. Oraingo fasean hutsegite txikiena garesti ordaintzen da, eta dagoeneko ez dago kontrario errazik. Horrela jarraitzen badute, gaitz erdi.

EDOZEIN NORGEHIAGOKA IZAN DAITEKE IKUSGARRIA

Noiz edo noiz norgehiagoka ikusgarriak zeintzuk izan daitezkeen iragartzen asartu gara, baina hemendik aurrera lan hori gaitzagoa izango da, norgehiagoka guztiak izango dira eta interesgarriak. Bigarren faseak aurrera egiten duen neurrian, errazagoa izango da gomendioren bat edo beste egitea.

KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

ESKUBALOIA

AGR Arrasate - Hegialde Auto	Lehen mai. senio. Domekan. 11:30. Iturripen.
Usurbil - Arrasate	Bigarren mai. senio. Domekan. 11:00. Usurbilen.
Arrasate - Aloña Mendi	Bigarren mai. gaz. Zapatuan. 16:15. Musakolan.
Gatz Museoa Jakion - Bergara	Lehen mai. gaz. Zapatuan. 18:00. Musakolan.

FUTBOLA

Ilintxa - Mondra	Erregionala. Zapatuan. 16:30. Zumaijan.
Mondra - Martutene	Ohor. gazteak. Zapatuan. 16:30. Atxabalpen.
Arrasate - Ilintxa	Kadeteak. Domekan. 12:15. Atxabalpen.
Eibartarrak - Arrasate	Kadeteak. Kopa. Domekan. 10:30. Unben.
Mondra - Eibartarrak	Neskak. Kopa. Domekan. 10:00. Atxabalpen.

ERRUGBIA

Senior mailako taldeak atsedena du.

Arrasate - Atletico San Sebastian

Kadeteak. Zapatuan. 11:00. Garagartzan.

SASKIBALOIA

Kenci Arrasate - ST Lizeoa	Seniorrak. Zapatuan. 18:00. Iturripen.
Zarautz B - Kenci Arrasate	Kadet. mut. Zapatuan. 10:00. Zarautzen.
STL Lazkao - Kenci Arrasate	Kadet. neskak. Eguenean. 19:15. Donostian.

EMAITZAK

ESKUBALOIA

1. seni.: AGR Arrasate - D. Majestic	21-21
2. seni.: Donib Cottal - Arrasate	20-27

ERRUGBIA

Senio.: Gaztedi - Arrasate	20-27
----------------------------	-------

FUTBOLA

Ohor. gazt.: Amaikak Bat - Mondra	1-2
-----------------------------------	-----

SASKIBALOIA

Senio.: Paules Car - Kenci Arrasate	87-77
-------------------------------------	-------

Fernando Biderbost-en margolan erakusketa, Arregi arte galerian

IKER BARANDIARAN

Fernando Biderbost margolaria bilbotarra da. 47 urte ditu eta ibilbide luzea egin du margolanen esparruan. Otsailaren 28an erakusketa jarri zuen Arregi arte galerian, eta 32 lan ditu ikusgai hilabete osoan.

Fernando Biderbost margolariak 32 lan ditu ikusgai Arrasateko Arregi arte galerian. Biderbosten margo lanak oso bereziak dira, eta orain dela 47 urte Bilbon jaiotako artista horrek eskola handia du dagoeneko.

Txikitan asko marrazten zuela aitortu digu: "13 urtetik aurrera, batez ere, asko marraztu izan dut. Niretako bakarrik marrazten nuen, eta nire marrazkiek abstrakzio eta manipulazio joera handia zuten".

70eko hamarkadan, marrazten jarraitu zuen eta komiki gutxi batzuk ere egin zituen. Era berean, 1974an egin zuen lehenengo erakusketa Biderbostek. Bilbo-ko El Desvan taldekoekin batera, Gernikako Udal Liburutegian tintaz egindako marrazkiak erakutsi zituen. 80ko hamarkada arte, ostera, atsedean hartu zuen.

80KO HAMARKADATIK, DIZIPLINAREKIN 80ko hamarkada hasieratik Biderbostek gogoz hartu zuen margotzea, eta diziplina ezarri zion zaletasun horri. Orduetik gaur egunera arte margotzea izan da bere lanbide nagusia eta hainbat erakusketa egin ditu. "Ez dut inoiz nire burua profesional moduan ikusi. Beti *underground*



Fernando Biderbost artistak izen handia hartu du azkenaldian.

samarra izan naiz, ez halako itxura hartu gura nuelako, baizik eta arte kritikoeekin eta arte galerietakoekin ez nintzelako ondo konpontzen".

Madriilen, Santanderren, Logroñon, Bilbon, Donostian, Gasteizen eta beste hiri batzuetan egin ditu erakusketak, eta *El País* egunkarian oso kritika onak jaso ditu. Biderbostek bere esti-

lo propioa dauka. Kritiko batzuen esanetan, gaur egun abstrakzioaren eta arte figuratiboaren artean koka dezakegu. "Margotzen dudanean ez dakit zer margotu behar dudan. Ikuslearen sentsazio psikikoa bilatu gura dut". Aspaldian margolan koloretsuak egin ditu, eta Arrasatera lan berriak ekarri ditu Fernando Biderbostek.



Andaluzia Eguna zela-eta, asteburu koloretsua ospatu zuten

Arrasateko Al-Andalus elkarteak egitarau berezia antolatu zuen Andaluzia Eguna ospatzeko. Egubakoitzean, Andaluziako eresia abestu zuten eta ohorezko topa eta luncha egin zituzten, oso giro alaietan. Zapatuan ere ez zen jateko, edateko ezta entzutekorik falta izan: musika emanaldiak, umeendako jolasak, askari eta bazkari goxoak, dantzaldia eta bestelakoak. /I.B.



Ai, ama! antzezlanaren euskal aktore ezagunek egiten dute lan.

Domekan, Hika taldeak 'Ai, ama!' lana antzeztuko du

I.B.

Domekan, hilaren 9an, Hika antzerki taldeak *Ai, ama!* lana eskainiko du Amaia Udal Antzokian. Antzezlana 19:30ean izango da. Martxoaren 8a dela-eta antolatutako ekitaldien barruan dago.

Domekan, hilaren 9an, Hika antzerki taldeak *Ai, ama!* lana antzeztuko du Amaia Udal Antzokian. Ikuskizuna 19:30ean izango da, eta Udaleko Kultura eta Emakume sailek antolatu dute, martxoaren 8ko ekitaldien barruan.

Ai, ama! antzezlana Arantxa Iturberen *Ai, ama!* liburuaren egokitzapena da. Gidoia Arantxa Iturbek berak eta Agurtzane Intxaurrek idatzi zuten. Agurtzane Intxaurrek zuzendari lanak egin ditu, eta aktoreak honako hauek dira: Ainhoa Aierbe, Miren Gojenola eta Pilar Rodríguez.

AMA IZATEA

Ai, ama! antzezlaren hari nagusia honako hau da: zergatik erabakitzen du zenbait emakume ama izatea? Emakumeak beste

erantzun jasoko genituzke banan-banan galdetuz gero, eta antzezlaren horretan erantzun horietako batzuk entzungo dituzue.

Hiru emakume izango dira protagonista, eta emakume horiek egingo dizute berba. Elkarrekin berba egingo dute, baita ikusleekin ere.

Emakume batek argi dauka ez duela ama izan gura, egun baten amatasunaren deia jasoko duen arte. Bigarren emakumeak galdera hori, ama izatearena, aspaldi egin zuen, baina orain arte ez du lortu, azkenean ia obsesioa bilakatu arte. Hirugarren emakumeak ez dio bere buruari galderarik egin, galderak egiteko denborarik izan ez duen belau-naldikoa delako.

Ai, ama! emakumeek eta amek askotan esan dute. Batzuek ama izateagatik galdu duten guztiarengatik. Beste batzuek, itxaropentsu, hainbeste lan ematen dien egoera gainditzeko ahaleginetan. Eta beste batzuek urtetan ama izan ondoren euren bizitza bizi izaten hasi behar dutelako.

Ai, ama! komedia poetikoa da, zurrumurruak, desioak, negarrak, irribarreak, beldurrak eta ametsak batzen dituena.

LABUR

Amaia Udal Antzokiko eguenetako zineklubak film interesgarriak ekarriko ditu martxoan

Martxoan ere Amaia Udal Antzokiko eguenetako zineklubak film interesgarriak ekarriko ditu herrira. Film guztiak 21:30ean emanango dituzte. Atzo, eguna, Maria Novaroren *Sin dejar huella* filma ikusteko aukera egon zen. Datorren egunean, hilaren 13an, Frantziako Agnès Jaoui zuzendariaren *Para todos los gustos* filma emanango dute. Martxoaren 20an, Irango Samira Makhmalbaf zuzendariaren *Arbela* filma ikusteko aukera egongo da. Eta, azkenik, martxoaren 27an, nazioarteko hamaika zuzendarik egindako film labur banak osatutako *Trailaren 11* emango dute.

BEHEKODENDATIK

Jose Angel Cecilio Legorburu

BEREYA ELEKTRIZITATEA

XABIER URZELAI

Jose Angelek San Viatorren ikasi euen lehenengo eta Eskola Politeknikuen gero. 1977xan, EYAn hasi zan lanien eta 1992xan, EYako soziuek jubilau zienien, Jose Angelek eta beste zortzi lagunek Bereya Elektrizitatea sortu euen. Elkarre anonimue da, baiñe Bereya kooperatibatik oso gertu ei dau.

Amets bat?

Etorkizuneko enpresa bat egittie.

Eta amets txar bat?

Sortu dogun dana arrazoi bategatik edo bestiagatik behera etortie.

Egin dozun azken biajie?

Kubara, juen dan urtien. Baiñe emaztiekin eta alabiekin juen nintzen, badaezpada be. (Barriek)

Txartel horixe, zeñei?

Hamengo eta Espaiñiako Estatuko politikuei.

Eta gorrixe?

Hamengo egoerie konponketa-ko erantzukizun zuzena daukienei.

Pelikula bat? Liburu bat? Musika talde bat?

La milla verde / Los pilares de la tierra / La Oreja de Van Gogh.

Drogak legalizauko zittukie?

Legalizau ez dakit, baiñe egoerie suabizauko neuke.

Eta prostituziñue?

Aurreko erantzun bera.

Tabernetako txikiteue ala diskotekak?

Txikiteue, duda barik.

Ze dauketzu sobran?

Lan egitteko gogue.

Eta faltan?

Neuretako denpora librie.

Ze gustetan jatzu Mondraguetik?

Jentie, berezixe dalako.

Alkate izengo bazitze, ze hobetuko zeunke?

Udalan partetik gauzak egitteko traba gutxiago jarriko neuke.

Eta lehendakari izengo bazitze?

Euskal Herrixen interesen alde gogorrigo egingo neuke lan.

Bizio bat?



X.U.

“Alarma asko jarten dittugu, baiñe askotan alarmien kajiek bakarrik efeto bera egitten dau”

Habanuek erretie.
Ezagutu dozun pertsona intersante bat?

On Clemente López Cano. San Viator ikastetxe-ko fundadorie.

Eta ezagutu nahiko zeunke-ena?

Bernardo Atxaga, adibidez.

Tranpan ibilttekotan norbaittekin, zeñekin?

Hollywoodeko aktore-eren batekin.

Telebisiñoko programa bat?

Dokumental-ak gustetan jat.

Eta irratikue?

Radio Euskadi entzuten dot.

Zertan gastauko zeuke dirue?

Orixon etxe bat erosten.

Alarma asko jarten dittu-

“Reparaziñuek behera egin daue, elektrodomestikuek kalidadekuek egitten dittue-eta”

zue?

Bai, baiñe alarmiek berak baiñe gehixago, alarmien kajiek efeto haundixago egitten dau.

Batei baiñe gehixaguri kajie bakarrik jarri dutzegu, alarma barik.

Orduen, Mondragón en cada casa un...

Ez, ez. Lapurrek kanpokuek izeten die, seguru.

Reparaziñuek be egitten dittuzue. Oin gauzak konpondu biherrien barrixek erosten dittugu, ala?

Bai, reparaziñuek behera egin daue, baiñe normala da.

Oingo elektrodomestikuek kalidade hobie daukie, eta apurketan dienerako zaharrak die.


NIREBIDAIAHURA/ Joxan Garcia Zapiain

Afrikara / 2002ko martxotik irailera arte

J oan den astean, Pretoriako tren geltokian utzi genuen Joxan. Hantxe pasatu zuen gaua, eta, *apartheid*-a kendu zuten urteurrena ospatzen zutenez, beldur apur bat pasatu zuen Joxanek: “Zuri bakarria nintzen eta jendea mozkortuta zegoenez, batek daki”. Ez zitzaien ezer gertatu; hori bai, politikaren gaineko berbaldi astuak jasan behar izan zituen.

Hegoafrikatik Zimbawera joatea erabaki zuen Joxanek. Jendeak Zimbaweko egoera politikoa zela-eta hara ez joateko esaten zion, baina Zimbawetik zetorren japoniar bat ezagutu zuen Joxanek, eta japoniarrak lasai joateko esan zion, ez zuela inolako arazorik izan. Ez zen damutu. Joxanek bilatzen zuen Afrika Zimbawen aurkitu zuen; era guztietako animaliak, tribuak, sekulako paraje ikusgarriak...

Joxanek hilabete egin zuen han. Bulawayo herrira iritsi zenean, hango zikintasunarekin harrituta geratu zen. Aurreko herrialdeetan arraza aniztasun handia zegoen, baina Zimbawen beltzak ziren guztiak. Hangoekin, baina, oso harreman ona izan zuen: “Hango jendeak ezer gutxi dauka, baina daukatena eman egiten dute”. Hwango Parke Nazionalera joateko Dete-ra trenez joan zen, eta handik oinez jarraitu zuen Joxanek. “Hasieran autostop egin nuen, baina hango paraje eta animaliekin txundituta nengoan, eta oinez jarraitzea erabaki nuen”. Autore bat pasatzen zenean, gelditu eta autora igotzeko esaten zioten, handik ibiltzea arriskutsua zela, baina Joxanek ezetz, gustura zihoala oinez. Elefante eta errinozeroak ondo-ondoan ikusteko aukera izan zuen Joxanek, eta behin baino gehiagotan korrika ere egin behar izan zuen: “Haiengana asko hurreratu gero, haserretu egiten ziren, eta argi ibili beharra zegoen”. Afrikara doan argi izan behar du nora doan: “Animaliak edo intsektuak ez badituzu atsegin, ez zaitez Afrikara joan. Behin, piton suge bat gertu baino gertuago nuela esnatu nintzen... Baina ohitu egiten zara”. Datorren astean ere baietz irakurtzen jarraitu.



“Nire ametssetako Afrika Zimbawen aurkitu nuen”

XABIER URZELAI



Bidaian herrialde eta tribu asko ezagutu ditu Joxanek.



Herrialde berriak bisitatu dituzu?

Zure bidaia kontatzeko prest zaude?
Anima zaitetz, zure abenturak gustura irakurriko ditugu eta!

Deitu 943 71 25 11 telefonora.



ZAHARREN ETXETIK



IKER BARANDIARAN

Jende ugari batu zen Musakolako erretiratuen elkartearen, batzarkideen azalpenak entzuteko.

Egoitza aldatu artean, Musakolako erretiratuek lanean jarraitzen dute

IKER BARANDIARAN

Joan den egubakoitzean, otsailaren 28an, Musakolako erretiratuen elkartearen batzar nagusia egin zuten. 89 erretiratu batu ziren eta elkarte lepo bete zen. Guztira 2003ko urtarrilaren 1eko datuak kontuan hartuta, elkarte horrek 554 bazkide ditu. Horietatik, 308 emakumeak dira eta 246 gizonak.

Batzar nagusian, elkarteak gaur egun dituen karguak aurkeztu zituzten. Idazkaria eta presidenteordea aspaldiko ezagunak dira: Jose Ramon Petreñas eta Pedro Miguel López, hain zuzen ere. Diruzaina Ignazio Orue da eta batzordekide berriak, Rosario Auzmendi eta Jose Bravo.

2002ko balantzea aztertu zuten, eta positiboa izan zen. Eta 2003rako aurrekontua aurkeztu zuten. Horrez gainera, 2003an egingo dituzten ekitaldien aurre rapena egin zuten; besteak beste, maiatzean, San Isidro jaiak direla-eta, karta joko eta bolo txapelketak, erretiratuen afaria eta bestelakoak antolatu gura dituzte.

Bestalde, apirilean eta maiatzean lau pabost txango antolatuko dituzte. Egun egiten dituzten eskulan, gimnasia eta bestelako ikastaroekin ere jarraituko dute.

BAZKIDE TXARTELAK

Martxoan, erretiratuen elkarte-ko bazkideek 2003rako txartela

egin beharko dute. Horretarako, astelehenetik egubakoitzera bitartean, 18:00etatik 19:00etara, bulegoa zabalik izango dute. Bazkideek bost euro ordaindu beharko dituzte txartel horren truke. Aurten, berritasun moduan, bazkide txartelak Zigorrolako astoaren irudia edukiko du.

EGOITZA BERRIAREN ZAIN

Musakolako erretiratuek dagoeneko hitzartuta dute Udalarekin etorkizunean *Maisuen Etxea* deritzona erabiliko dutela. Horren harira, Arrasateko Udalak 2003ko aurrekontuetan *Maisuen Etxea* egokitzeko 240.000 euroko partida eman du. 2002ko Gabonen aurretik, alkateak, Musakolako auzo-alkateak, erretiratuek eta beste elkarte batzuek batzarra egin zuten, eraikin horren erabilera eta banaketa zehazteko.

Erretiratuek jakin dutenez, baliteke eraikina 2004rako bukatuta egotea, baina Arrasateko Udalak ez die ezer zehatzik esan. Eta erretiratuek dagoeneko aurkeztu diote Arrasateko Udalari egoitza berriaren proiektua.

Leku handiagoa behar dute

Musakolako erretiratuen elkartearen 1982an eratu zuten, eta ordutik hona egoitza berean batu dira elkarte-koak.

Gimnasia, eskulanak eta bestelako ikastaroak Musakolako auzo-alkatezako egoitzan egin behar izaten dituzte, eta berbaldiak eta bestelakoak egiteko leku faltan daude. Karta-jokoan egiteko ere ez dute nahiko leku izaten.

LABUR

1934an eta 1937an jaiotakoek urteroko ospakizunak antolatu dituzte martxoan

1958ko kintoek -1937an jaiotakoak- egun handia ospatuko dute martxoaren 15ean. Meza eta bazkaria izango dituzte. Martxoaren 9a baino lehen Jose Riviereri deitu beharko diote (943 79 10 57), eta 10 euro ordaindu. 1934an jaiotakoek, berriz, hilaren 22an ospatuko dute. Meza eta bazkaria izango dituzte. Bengoa tabernan eman behar da izena, hilaren 15a aurretik, eta 10 euro ordaindu.

Toki Argi elkarteak Miramongo Kutxaespaziora txangoa antolatu du

Santa Marinako Toki Argi zaharren elkarteak Miramongo Kutxaespaziora txangoa antolatu du martxoaren 14an. Musakolako zaharren egoitza ondok irtengo dira, 09:00etan. Miramongo Kutxaespaziora joango dira, eta horren ondoren, Aginagan bazkalduko dute, Aginaga sagardotegian, hain zuzen ere. 20 euro ordaindu beharko dira (Kutxaespazioko sarrera barne).



Iturbiden Aratustek ospatu zituzten

Martitzenean Aratustek zirela-eta, Iturbide egoitzan, kalean moduan, kolorea eta mozorroak izan ziren nagusi. Egoitzan bizi diren erretiratuak pailazo jantzi ziren, nahiz eta *sheriff* jantzita zegoen erretiratuen bat ere ikusi genuen. Dantzaldia izan zuten egoitzan bertan.

Euren senitartekoez eta lagunez inguratuta, arratsalde ederra pasatu zuten Arrasateko adinduen egoitzan bizi direnak. Oso gustura egon ziren musika entzuten, eta bat baino gehiago dantzan egitera animatu zen. A ze festa! /I.B.



Berezitasunak

Kazuelatxoak

Otarteko hotz eta beroak

Arrasate pasealekua, 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82



Gambrinus
garagardotegia

- Menua:
bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziaduna, 40-42
Tel.: 943 79 53 32

Aretz

Taberna

Markole 5
943 79 14 67
ARETXABALETA



ARRASATE
Mikel Etxebarria
Otsailaren 27an, 23 urte.
Zorionak! Jone eta Amets txiki.



ARRASATE
Alba Andres
Martxoaren 5ean, urtebete. Zorionak! Etxekoen partetik.



ARRASATE
Maite Iraeta
Martxoaren 7an, 3 urte. Zorionak! Gurasoak.



ARAMAIO
Garazi Eriz
Martxoaren 4an, 16 urte. Zorionak! Koadrilakoak.



ARRASATE
Xabi Biteri
Martxoaren 6an, 10 urte. Zorionak! Aita, ama eta Unai.



ARRASATE
Leire Aranzabal
Martxoaren 6an, 13 urte. Zorionak, *gattito!* Koadrilakoen partetik.



ARRASATE
Magdalena Bilbao
Martxoaren 9an, urtebete. Zorionak! Familia-koen partetik.



ARAMAIO
Garazi Eriz
Martxoaren 4an, 16 urte. Zorionak! Etxekoen partetik.



ARAMAIO
Ekain Eriz
Martxoaren 4an, 9 urte. Zorionak! Etxekoen partetik.



ARRASATE
Oscar Lagullón
Otsailaren 27an, 11 urte. Zorionak! Gurasoak eta arrea.



ARRASATE
Lorea Amutxastegi
Martxoaren 7an, 15 urte. Zorionak! Etxekoen partetik.



ANTZUOLA
Alaitz Urkiola
Martxoaren 5ean, 9 urte. Zorionak! Arrasateko Lorearen partetik.



ARRASATE
Koro Barrena
Martxoaren 4an, urtebete. Zorionak! Lankideen partetik.



ARRASATE
Ainhoa González
Otsailaren 27an, 6 urte. Zorionak! Aitaita eta amama.



ARRASATE
Igor Uribesalgo
Martxoaren 11n, 31 urte. Zorionak, aitatxo!



ARRASATE
Xabier Urzelai
Martxoaren 13an, 24 urte. Zorionak, *Superman!* Lankideen partetik.



ARRASATE
Jon Ariznabarreta
Martxoaren 16an, 11 urte. Zorionak! Aita, ama eta osaba.



ARRASATE
Alex Michbronn
Martxoaren 7an, urtebete. Zorionak! Lagunen partetik.



ARRASATE
Jose Arana
Martxoaren 6an, urtebete. Zorionak! Miren eta Oier.



ARRASATE
Oier Arana
Martxoaren 7an, 6 urte. Zorionak! Aita, ama eta Miren.



ARRASATE
Fernando Arana
Martxoaren 12an, 40 urte. Zorionak! Oier eta Miren.



ARRASATE
Itziar Gardoki
Martxoaren 7an, 21 urte. Zorionak! Etxekoen partetik.



ARRASATE
Miren Gartzia
Martxoaren 4an, urtebete. Zorionak! Txomin eta familia.



ARRASATE
Nerea Gartzia
Martxoaren 1ean, urtebete. Zorionak! Txomin eta familia.



ARRASATE
Alazne Zubillaga
Martxoaren 3an, 2 urte. Zorionak! Aita, ama eta Maider.



ARRASATE
Izar Ijurre
Martxoaren 11n, 5 urte. Zorionak! Aita, ama eta Naia.



ARRASATE
Aratz Arzuaga
Martxoaren 11n, 5 urte. Zorionak! Izar eta Naia.



ARRASATE
Joseba Heriz
Martxoaren 5ean, 16 urte. Zorionak! Etxekoen partetik.



ARRASATE
Itsaso Ugalde
Martxoaren 6an, 13 urte. Zorionak! Koadrilakoen partetik.



ARRASATE
Maria Puy Ramiro
Martxoaren 8an, urtebete. Zorionak, gure amatxori! Tomasa, Agurtzane eta Eli.



ARRASATE
Jose Sánchez
Martxoaren 4an, urtebete. Zorionak! Zure lagunen partetik.




ARRASATE
Aurora Villar
Martxoaren 3an, 70 urte. Zorionak! Anai-arreben partetik.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
ARRASATE PRESSen bidez! Ekar ezazu haren argazkia*
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm.
Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.
Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu zorion agurra ARRASATE PRESSen agertu ondoren.
Argazkia urtebetetze eguna baino astebete lehenago ekartzea komeni da.

EZETZASMATU



XABIER URZELAI

Zein izen du Arrasateko hilerri zaharrak?



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

Don Rodrigo ardo beltza eta gorria
75cl

0,60€ 100 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

MARIA LUISA ORUNArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Maria Luisa!
Galderen erantzun zuzena:
Euskadiko Kutxaren egoitza nagusiaren kanpoan.

ARRASATEKOHISTORIA

Arrasateko erreketak
(1448ko ekainaren 23a)

JON ANDER RAMOS

Erdi Aroan, Euskal Herria bi leinu nagusitan zegoen banatuta: Oinaztarrak eta Ganboatarrak. Arrasaten ere gauza bera gertatzen zen; hemen talde bi zeuden: Gureia (Oinaztarra) eta Báñez (Ganboatarra). Zatiketa hura oso nabarmena zen herrian: alkate bi zeuden (talde bakoitzak berea zuen), erietxe bi... Eta egoera haren ondorioz, iskanbila ugari izaten ziren herrian.

Kontua da, behin, Oñatiko kondeak laguntza eman zuela norgehiagoka hura Báñeztarrek irabaz zezaten. Kondea Arrasatera sartu zen, troparekin. Oinaztarrek hori ikustean, Bizkaiko González de Butrón eta Muxika leinuari eskatu zioten laguntza; eta hari esker, Oñatiko kondearen tropak herritik bidali zituzten.

Baina giroa ez zen aldatu. Ez zen bakerik. Ganboatarrak ez zuten etsi. Eta Oñatiko kondeak 2.000 ganboatarrak batu zituen. Haiekin Arrasate inguratu zuen, herria bereganatzeko asmoz. Baina ez zuen lortu. Eta orduan, herriari su ematea erabaki zuen. 1448ko

Arrasaten leinu bi zeuden: Gureia (Oinaztarra) eta Báñez (Ganboatarra)

Oñatiko kondeak ez zuen lortu Arrasate bereganatzea, eta, horren ondorioz, su ematea erabaki zuen

ekainaren 23a zen: San Juan bezpera eta herriko jaien hasiera.

Oinaztarrak arrapaladan irten ziren herritik, Bergarako bidetik. Baina ezin izan ziren urrutira joan. Arrasateko udalerrri inguruan harrapatu eta bertan hil zituzten-eta.

Ekintza hark eragin handia izan zuen Euskal Herrian, baita Penintsulan ere. Garai hartako



1448 KO EKAINA, SAN JUAN GAUA. BANDOEN ARTEKO BORROKA BETE BETEAN ARRASATE GOITIK BEHERA ERRETZEN DA.

ARTXIBOA

Arrasate erre zutelakoa irudikatzen duen komikia: *Arrasate sutan*. Mikel Garatek egindakoa da.

erregea haserre bizian zegoen. Segituan hartu zituen neurriak: Oñatiko kondeari eta beste 300 lagun heriotza-zigorra ezartzea erabaki zuen; hala ere, zigorra ez zen bete. Geroago, beste

neurri batzuk hartu zituzten: Arrasatek 300.000 marabedi ordaindu zizkion Oñatiko kondeari, eta hala, kondeari herrian zituen ondasun guztiak erosi zizkioten; horrela, haren

indarkeria suntsitu zuten. Horrez gainera, Errege Katolikoek Báñeztarren eta Gureiatarren leinuak desegin zituzten, eta leinuen arteko borroka amaitu egin ziren.

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2003ko martxoaren 7a / 56. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

'Egunkaria'-ren aldeko ekimenak izan ziren herrian

UBANE MADERA

Euskaldunon Egunkaria-ren kontrako operazio polizialaren aurrean, Aramaioko Udalak eta herritar dezentek euren babesa eta atxikimendua eskaini diote egunkari euskaldunari. Besteak beste, mozio bat onartu du udalbatzarrak eta zenbait herritarrek kale bilkurak egin zituzten.

Joan den asteko osoko bilkuran, udalbatzarrak, besteak beste, *Euskaldunon Egunkaria*-ren aldeko mozioa onartu zuen, aho batez. Mozio horren arabera, *Egunkaria* ixtea eraso dela diote, eta eraso hori "euskararen normalizazioaren aurkako estrategia kalkulatu eta iraunkor baten barruan kokatzen duela Kontseiluak". Era berean, hori salatzeko bost puntu onartu zituen

udalbatzarrak.

Bost puntu horietan *Egunkaria*-ren itxiera eta bere ardura-dunen atxiloketa salatu zuen udalbatzarrak; eraso horren helburua, besteak beste, euskararen normalizazio prozesua geldiaraztea dela adierazi zuen; *Egunkaria* ixteak kaltetu dituen guztiei elkartasuna adierazi zien, batez ere, *Jakin* aldizkariko, Herri Irratiko, Ikastolen Federazioko eta Elkarlanean Fundazioko kideei; *Egunkaria* berriro ere zabalik gura dutela esan zuen udalbatzarrak, eta bukatzeko, 300 euro pasatzeko dirulaguntza ematea onartu zuen.

HERRITARRAK ERE BAI

Bestalde, zenbait herritarrek ere egin dituzte gertaera horrekin lotutako elkartasun eta protesta ekimenak. Besteak beste, joan den eguaztenean, kale bilkura egin zuten Bizente Goikoetxea plazan. Kontseiluak egindako deiarekin bat eginez, Txirritola Euskara Elkarteak deitu zuen protesta ekimena. Emandako datuen arabera, jende dezente batu zen kale bilkuran: gutxi gora behera, 80 lagun.



JULEN IRIONDO

Egunkaria ixtea euskararen kontrako eraso dela salatu dute.

Bosgarren urtez, Maider Unda Espainiako txapelkun

Otsailaren 15ean, Maider Unda oletarrak Espainiako Txapelketa irabazi zuen, bosgarren urtez. Maider Unda Madrilen dago joan den iraila ezker, ADO bekarekin, eta, kontatu digunez, Gabonetan lesionatu eta hilabete eta erdiz geldi egon behar izan du; hortaz, azkenera arte ez du jakin izan Espainiako Txapelketara aurkezteko aukerarik izango zuen. Kontuak kontu, lortu zuen garaiz osatzea eta berak eskuratu du txapela.

TURKIAN, BIGARREN

Eta ez hori bakarrik: joan den eguaztenean (hilak 26), Turkiarako bidea hartu zuen Maider Undak, nazioarte mailako torneo baten lehiatzeko, Espainiako Selektzioaren izenean; eta han

(Ankaran) bigarren postua eskuratu zuen beste bost borrokalariren aurka borrokatu ostean. Asteburu osoa eman du borrokan, eta bigarren postuan geratu den arren, ez dago oso gustura: "Lehenengoko saioa galdu nuen, eta ez nintzen batere gustura geratu egindakoarekin". Kontatu digunez, bereziki, Greziako eta Bulgariako neskek erakutsi zuten mailarik onena.


Dena dela, dagoeneko itzuli da Madriler, eta han bere entrenamenduekin jarraituko du, oraingo honetan apirilari begira. Nazioarteko torneoa izango du apirilean Madrilen; eta haren ostean, maiatzean Europako Txapelketan hartuko du parte.

Horrekin bukatuko du Maider Unda gazteak programaren

lehenengo zatia.


OLINPIAR JOKOAK

Baina Oletako borrokalaria-rendako garrantzitsuen programa-ren bigarren zatia da. Irailean New Yorken jokatu den Munduko Txapelketan hartuko du parte; han lehenengo bosten artean geratzen direnak Greziako Olinpiar Jokoetarako zuzenean sailkatuko dira. Hain justu, horiek ditu helburu Undak: Olinpiar Jokoak. Hortaz, hori lortzen saiatuko da. Bere esanetan, ez da erraza izango. Zozketa bidez erabakitzen da zein izango den aurkaria; hortaz, zozketa erabakigarria da. Adibidez, Japongo borrokalariek oso maila ona dute, eta haien kontra borrokatzea tokatuz gero, lan zaila izango luke Maiderrek.



'Zuberotarrek bat Auzolanean'

Zuberotarrek bat Auzolanean kanpainaren antolatzaileek eskerak eman dizkie aramaiorrei kanpainan parte hartzeagatik. Adierazi dutenez, ekimen horri esker 401.745 euro batu dituzte. Eta elkarlan horretatik Euskal Garapen eta Kohesio Fondoa izeneko elkarte sortu dela jakinarazi dute. Elkarte horren bitartez kudeatuko dute Zuberoaren alde jasotako ekarpenak. Edozelan ere, litekeena da aurrera begira ekimen gehiago egitea. Bereiziki, kontuan hartuta hasierako helburua milioi bat euro batzea zela. Hortaz, oraindik badago zer egin Zuberoaren alde.



Irailean New Yorkera joango da Maider Unda, Munduko Txapelketara.

Aratusteak beti Aratuste: mozorroa jantzi eta denak kalera, nagusi zein gazte

UBANE MADERA

Zapatuan eta martitzenean. Bietan nagusitu dira musika, dantza, kolorea eta irudimena: Aratusteen sena. Umeak eta ez hain umeak ibili dira jairik jai. Eta askotariko mozorroak erabili dituzte: egunerokotasunarekin lotutakoak (*Prestige*-ren hondamendia, Iraken gerra...) edo ohikoagoak (animaliak, printzesak...). Zapatuan, 14 urtetik beherakoetan, *Errobotak* eta *Bagabundoak* izan ziren garaile. 14 urtetik gorakoen artean, *Lamak* eta *Nekazari atzeritarrak* izan ziren garaile. Eta orijinaltasunaren barruan, *Nam-Nam* taldea eta *Inportante* (asto eta guzti). Datorren urtean gehiago!



San Martin Eskolan nagusiak ume bihurtu ziren egun batez.



Lore eta guzti irten ziren zenbaitzuk gerraren kontra, armak etxean utzita.



San Martin Eskolan, umeek dantzaldia, jolasak, txokolate jana eta giro ederra izan zuten



Hara! Galiziatik hanka egin eta Aramaioa etorri zaigu *Prestige*, fuel-olio eta guzti!



Orgatila eskuan eta txapela buruan zutela etorri ziren atzerriko baserritarrak.

TELEFONOJAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuliako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00	10:15**	
11:00	11:15	
12:00	12:15**	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30	18:45**	
20:30	20:45	21:05
21:10	21:25**	
GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:20	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:45	14:10
16:20	17:00	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:10	20:00

Herri plataforma aurkeztuko dute domekan

UBANE MADERA

Gainerako herrietan egiten ari diren moduan, Aramaio ere herri plataforma sortu dute. Hain justu, domekan, hilaren 9an, aurkeztuko dute herritarren aurrean. Ekitaldia 12:30ean izango da, Bizente Goikoetxea plazan. Parte hartu gura duten aramaiorrei gonbidapen zabala egin gura die plataforma horrek.

Esandako moduan, domekan aurkeztuko dute Aramaio herri plataforma berria. Oraindik ez dakigu zein den plataforma horren izena, hain zuzen ere, aurkezpen ekitaldian emango dutelako horren guztiaren berri. Hori bai, Aramaio ezkertiarrek eta abertzaleak batuko dituen taldea izango dela jakinarazi digu antolatzailetako batek. Hori dela eta, domekako ekitaldira, bereziki, Aramaio herriar ezkertiarrek

eta abertzaleak gonbidatu gura dituzte.

HELBURUAK

Talde irekia da, herritarrez osatutakoa, eta beste herritar ugariaren atxikimendua jaso du. Helburu nagusiak, berriz, honakoak dira: autodeterminazioa, euskararen aldeko borroka eta ideia guztiendako lekua egitea. Edozelan ere, helburuen berri zabalagoa emango dute domekako ekitaldian; idatzi bat irakurriko dute horretarako.

Horrekin batera, taldearen izenaren zergatia azalduko dute, batutako guztiaren argazkia aterako dute eta, horren ostean, luntxa egingo dute.

HAUTESKUNDEAK

Bestalde, udal hauteskondeei begira ez dakigu zer egingo duen talde horrek. TXIRRITOLARI adierazi diotenez, martxoaren 15ean hasiko dira, hain zuzen ere, gai hori lantzen.

LABURRAK

Zuhaitz Eguna datorren astean izango da, eta abian da jaietarako Kartel Kehiaketa

Urteroko hitzorduarekin bat egin, eta martxoaren 26an Zuhaitz Eguna egingo dute Aramaion. San Kristobalen izango da eta 30 bat zuhaitz landatuko dituzte; hain justu, lizarrak. San Martin Eskolako 6 eta 12 urte arteko umeek hartuko dute parte; 44 bat ume.

Bestalde, San Martinetarako Kartel Lehiaketa abiarazi du Aramaio Udalak. Edozeinek har dezake parte lehiaketan, eta, betiere, *San Martinak 2003 Aramaio Uztailak 4,5,6 eta 7* leloa eraman beharko du aurkeztutako lanak. A-3 edo A-2 neurrietan aurkeztu behar dira lanak, edo bestelako euskarri informatikoren baten, maiatzaren 30a baino lehen, Aramaio udaldegian. Irabazten duenak 180 euro jasoko ditu eta bigarrenak, 100 euro.

Areto futboleko eta Paleta Txapelketako asteroko emaitzak, eta zinema

Gazte mailako mutilek 5-5 egin zuten Urgatziren kontrako partiduan, eta neskek, berriz, 7-3 galdu zuten CD Aurreraren kontra. Oraingo asteburuan, gazte mailako taldeak Kopa Txapelketari ekingo dio eta Cafeteria Atenea taldea izango du aurrez aurre, bihar, zapatua, 10:45ean, Mendizorroztan. Kadete mailako mutilek El Campilloren kontra jokatuko dute, 10:30ean, Aramaion. Eta neskek CD Aurrera taldea izango dute aurrez aurre, 11:30ean, Aramaion.

Paleta Txapelketari dagokionez, Pérez-Urra eta Garaita-Flores bikoteak sailkatuta daude finalerako. Eta, beste lau bikoteak sailkatzeko aukera dute; oraingo asteburuan erabakiko da zeintzuk izango diren. Zinemari dagokionez, berriz, *El Caballero Negro* filma emango dute.

ERRETRATUZHARRA

Gerran preso hartu, eta lan-batailoietara

Arrasate 1936 Belaunaldi etena liburua berriro publikatuko dela erabaki du Udalak. Guk ere garai hori gogorarazi gura izan dugu, eta liburuko argazki bat eta pasarte batzuk ekarri ditugu. Oraingoan, lan-batailoietara bidalitako lau arrasatear ageri dira. Garai hartan preso hartzen zutena kartzelara, lan-batailoietara edo kontzentrazio-esparruetara eramaten zuten. Edo, jakina, fusilatuta egiten zuten.

Hara Dragoien batailoiko gudari baten lekukotasuna: *Gu Asturiasen atxilotu gintuzten ondoren, Santa*

Mariako espetxera eramán gintuzten batzuk eta beste batzuk Cadizko La Carracako arsenalera; han astoak bezala lan eragiten ziguten ontzietan; gero Algecirasa eramán gintuzten; une batean Francok pentsatu ere egin zuen langile batailo guztiak Gibraltargo Haitza hartzeko kontzentratzea; une horretan ihes egin zuen arrasatear batek, Constantino del Pozok, igerian, Gibraltargo Haitzeraino. Hitlerren kontra borroka egiteko boluntario joan zen Hok akorazatuan; ontzi hori alemanek itsasoan hondoratu zuten. Constantino, geroztik, Hego Amerikan exiliatu zen. Amayur batailoiko

gudari batek ere badu zer kontatu: Laredotik San Juan Mozarritarera eramán gintuzten; eta handik Saulingo 25. langile batailoira; Arrasateko 18 (...) ginen. Manresan Ebroko frontera eramán nahi izan gintuzten, frankistekin borroka egitera, ez genuen onartu, bertan fusilatuko gintuztela mehatxu egin ziguten.

Honakoak agertzen dira argazkian: Agustín Eriz, Tomás Ruiz de Alegria, Bizente Etxebarria (makurtuta) eta Félix Barrutia (esku-man).

Argazkia eta informazioa:
'Arrasate 1936 Belaunaldi etena'
Urtea: 1936



NOLA ALDATUDIRENGAUZAK

Juan Carlos Gerra etxea eta Olarte

Argazkian ikusten da Arrasateko harresiaren gainean egin zituzten etxebizitzetako bat: Juan Carlos Gerraren etxea, hain zuzen ere. Erretratua Seber Altubetik aterata dago, eta atzean Olarte kalea dago. Eskuinaldean San Frantzisko eliza dago eta argazkilaria atzeko aldean, berriz, garai hartan Seber Altube plazan zegoen merkataua.



≈ 1968

Argazkian azaltzen den Juan Carlos Gerra etxea 1973an bota zuten. Juan Miguel Epeldek atera zuen argazkia.



2003

Seber Altube guztiz eraberrituta dago, baita Olarte kalea ere. Hala ere, erraz bereizten da harresi zaharra non zegoen.

EGUZKIGRAF →
inprimategia

Industrialdea E-0-4
Tfnoa: 791844
Faxa: 792941

ARETXABALETA

**OSORIK
PUB**

Ignazio Zuloaga 4
ARRASATE

TTUKUN


- Fotokopiak
- Liburu jostekak
- Fotokopiak koloretan
- Planoen kopia
- Offset-a

Ferrerias 23 # ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62

**UGARAN
jatetxea**

Garagartza auzoa
Tel: 943 79 76 58
ARRASATE

Fronton tabernarekin MALLORKARA!!!



Etor zaitez Fronton tabernara eta har ezazu parte Mallorkara astebeteko bidaia zoragarri baten zozketan. (Bidaia ekaineko bigarren astean izango da)

**Edari bat hartuta, txartel bat.
Keler bat hartuta, hiru txartel.**

Zozketa :

Maiatzaren 16an, Fronton tabernan bertan, 19:00etan (GOITBko kameren aurrean)

GOITBn ikus dezakezue, maiatzaren 19an, 20:00etan.

GRUPO RKUZ 1950-2003

Zure etxea da



Araba etorbidea 20
Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA



Araba Etorbidea 5
Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



Mitarte 3
Tel./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA



Andramari auzunea 1
Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA

